EUSKARA ETA BERE DIDAKTIKA

Aitor MURUAMENDIARAZ TELLERIA

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA, ESPARRUA ETA GATAZKA/ *CONFLICTO LINGÜÍSTICO, ÁMBITO Y NORMALIZACIÓN DEL EUSKERA*

TFG/*GBL* 2013

upna Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación Primaria
Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA, ESPARRUA ETA GATAZKA
CONFLICTO LINGÜÍSTICO, ÁMBITO Y NORMALIZACIÓN DEL EUSKERA

Aitor MURUAMENDIARAZ TELLERIA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante
Aitor MURUAMENDIARAZ TELLERIA

Izenburua / Título
Euskararen normalizazioa, esparrua eta gatazka */ Conflicto lingüístico, ámbito y normalización del Euskera*

Gradu / Grado
Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a
Juan Karlos LOPEZ MUGARZA

Saila / Departamento
Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saila / Departamento de Filología y Didáctica de la Lengua

Ikasturte akademikoa / Curso académico
2012/2013

Seihilekoa / Semestre
Udaberrikoa / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute […] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagokikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta dizplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluek bidea eman didate alde batetik gizartea baten indarrak duen garrantziaz jabetzeko, eta bestetik, norbanakoaren pentsatzeko moduak eta honen ekintzek gizartean duten eraginez ohartzeko. Hau, hizkuntza eta kultur nortasunaz (1-3 orr.) eta hizkuntzaren arlo eta faktoreez hitz egiten den ataletan (7-9 orr.) islaturik ikus daiteke.

Didaktika eta diziplinako moduluek, ikasle-irakasle arteko harremana zeinen garrantzitsua den erakutsi didate, hauek hizkuntzaren normalizazioaren eremuan duten eginkizun eta indarra azaleratuz. Hau, normalizazioaz eta eskolaz hitz egiten den atalean (12-14 orr.) ikus daiteke batez ere, baina baita galdetegian lorturiko emaitzen azalpen eta analisian ere (26-51 orr.); horrez gain, lan guztian zehar zeharka lantzen den gaia da.

Halaber, Practicum moduluek, euskararen erabilera egoki batek duen garrantziaz ohartzeko balio izan didate, normalizazioaren oinarrian hizkuntzaren erabilera jator bat beharrezkoa dela argi utziz. Hau, hizkuntza komunikazio baliabidea dela esaten den atalean (15-16 orr.), euskara eta curriculuma lotzen diren atalean (18-21 orr.) eta galdetegian bertan aurki daiteke.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “2.4. Comparación de los resultados obtenidos: Educación Primaria, Educación Secundaria y Nivel Universitario”, “Conclusiones” eta “Referencias” atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den derrigorrezko laburpena ere.

Laburpena

Euskararen normalizazioa eta esparrua aspaldidanik direnez euskal hiztun komunitatearen kezka, lan honetan alor hau aztertu dut, zenbait adituren hitzetan oinarrituz hizkuntzaren eta kulturaren nortasuna, normalizazioa bera, hizkuntzaren arlo eta faktoreak, normalizazioaren hurbileko testuingurua eta honek eskolarekin duen harremana landuz batetik, eta marko teoriko honetan bildurikoa egiaztatu asmoz galdetegi batean oinarrituriko arlo praktikoa burutuz bestetik. Galdetegi hau, atal teorikoak jarraitzen duen ordena berean eginiko 17 galdera itxiz osatua dago, eta berau euskal hiztun komunitateko txoko ezberdinetako irakasle eta adituei (L.H., D.B.H. eta Unibertsitate maila) luzatu dieten, besteak beste, EAE-koak eta Nafarroakoak. Azterketa honetan Ipar Euskal Herria albo batera utzi dut, bertako curriculuma ezberdina denez (Frantsesa), kasu honetan lortuko nituzkeen emaitzak ezingo liratekeelako lorturiko beste datuekin alderatu. Jasotako erantzunak behatu eta aztertu ostean, hiru mailetako emaitzak konparatu ditut, errealitate guztiak ezberdinak izanik, ikuspuntu oro kontuan hartu ahal izateko. Ondorio garrantzitsuenetariko bat ondorengoa da, ikasle gutxi ohartzen badira ere, euskararen erabilera ez dela behar bestekoa eta beraz normalizazio baten beharra ezinbestekoa dela; irakasleen gehiengoak badaki hala dela, eta garrantzitsua dela familia, ikastetxe eta gainerako erakundeen inplikazioa alor honetan.

Hitz gakoak: euskara; normalizazioa; hizkuntza komunitatea; erabilera; hezkuntza.

Resumen

Siendo desde hace mucho tiempo, la normalización del euskera y su desarrollo territorial, motivo de preocupación de la Comunidad Lingüística vasca, y siguiendo las tesis de destacados expertos en la materia; se ha trabajado en primer lugar sobre la identidad de la cultura y la lengua, la propia normalización, los factores del lenguaje, el contexto próximo a la normalización y la relación que esta mantiene con la escuela y en segundo lugar, se ha intentado certificar lo recopilado en el anterior marco teórico, para terminar concretando la parte práctica basándonos en una encuesta de diecisiete

preguntas cerradas. Se ha realizado dicha encuesta a profesores y expertos de diferentes lugares y niveles educativos de la sociedad vascoparlante (Primaria, secundaria y a nivel universitario) tanto de la CAV como de Navarra. Se ha decidido excluir el territorio vasco-francés por las diferencias que existen entre ambos *curriculums* y cuyos resultados no podrían ser entrelazados. Una vez observadas y analizadas las respuestas obtenidas se han comparado los resultados de los diferentes niveles para, siendo las realidades tan diversas, poder tener en cuenta los diferentes puntos de vista. Una de las conclusiones más importantes que se ha obtenido ha sido que el euskera no cuenta con la fuerza que debería tener y que la normalización del euskera es, cuanto menos, necesaria. La mayoría del profesorado es consciente de ello, pero el alumnado no, por lo que, es a todas luces necesaria la implicación y el trabajo de la familia, los centros educativos y las instituciones.

Palabras clave: euskera; normalización; comunidad lingüística; uso; educación.

Abstract

I have done an analysis of the standardisation and the framework of the Basque language, which is a field that concern the Basque speaker community from a long time ago. For that, I have completed on the one hand a theoretical framework based on some experts' words, explaining the identity of the language and the culture, the standardisation itself, the task of the language and its factors, the context around the standardisation and the relation it has with the school; and on the other hand, I have completed a practical section based on a questionnaire in order to verify what it is said in the first part of the work. The question paper contains 17 close questions following the same order of the theoretical framework, which I have offered to teachers and experts (Primary Education, Secondary Education and University level) from different zones of the Basque speaker community, such as the Basque autonomous communities and Navarre. I have left the Northern Basque Country to one side because taking into account that they have a different curriculum or teaching plan (it is French) I would not be able to compare the obtained results between them. After considering and analysing the results of the three levels, I have compared them in order to take into account all the points of view, as the

realities are very different ones from the others. Finally, one of the most important conclusions is that even though few students notice that the use of the Basque is not as it should, the majority of the teachers know it, as well as they know that the implication of the family, the school and the rest of the institutions is indispensable in this field.

Keywords: Basque; standardisation; speaker community; use; education.

Résumé

Depuis longtemps la normalisation de l´euskera (langue basque) et son développement territorial ont été cause de préoccupation dans la communauté linguistique basque. En suivant les thèses de personnalités dans la matière, on a travaillé au début sur l´identité de la culture et la langue, la propre normalisation, les facteurs du langue, le contexte prochain a la normalisation et la relation qu´elle maintient avec l´école, après, on a essayé de certifier tout qu´on a compilé dans l´antérieur cadre théorique pour finir en faisant le point de la parte pratique en fondant dans une enquête de dix sept questions fermées. On a fait cette enquête avec professeurs et experts dans la matière, des différents lieus et niveaux éducatifs de la communauté qui parle la langue basque (École primaire, Secondaire et a Niveau universitaire) aussi de la CAV que de Navarre. On a décidé exclure le territoire basque-français parce-que les “curriculums” sont très différents et les résultats on ne pourrait pas être entrelacées. Après voir et analyser les réponses, on a comparé les résultats des différents niveaux pour, ont étant, les réalités si différents, pouvoir pendre en considération les différents points de vue (vues d´ensemble). On a arrive á la conclusion, la plus importante: La langue basque n´a pas la force nécessaire qu´elle devrait avoir et pourtant, a besoin de la normalisation. La plupart des professeurs a consciente de celui-ci, mais l´effectif scolaire non, pourtant c´est clair qu´il a besoin de la implication et le travail de la famille, les centres éducatifs et l´Office Éducatif.

Mots-clefs: langue basque; normalisation; communauté linguistique; usage; éducation.

Aurkibidea

Hitzaurrea ..... **iii**

Laburpena ..... **v**

Resumen ..... **v**

Abstract ..... **vi**

Résumé ..... **vii**

1. MARKO TEORIKOA **1**

1.1.Euskara hizkuntza 1

1.1.1.Hizkuntza eta kultur nortasuna 1

1.1.2.Normalizazioaren inguruan 3

1.1.3.Hizkuntzaren arlo eta faktoreak 7

1.2.Euskara hezkuntzaren eremuan 10

1.2.1.Hurbileko testuingurua 10

1.2.2.Normalizazioa eta eskola 12

1.3.Hizkuntza eta hezkuntza 15

1.3.1.Hizkuntza komunikazio baliabide 15

1.3.2.Egungo eredua: konpetentziak eta hizkuntza 16

1.3.3.Euskara eta curriculuma 18

2. ATAL PRAKTIKOA **21**

2.1.Galdetegiaren deskribapena 21

2.2.Emaitzen azalpena 26

2.3.Emaitzen analisia 27

2.4.Comparación de los resultados obtenidos: Educación Primaria, Educación Secundaria y Nivel Universitario 51

CONCLUSIONES **55**

REFERENCIAS **59**

Libros 59

Artículos 59

ERANSKINAK **55**

I. ERANSKINA: Galdetegia **63**

1. MARKO TEORIKOA

Lan orok izan behar du non oinarritua, eta atal honek biltzen du kasu honetan proiektua garatze aldera aurkituriko informazioarekin osaturiko marko teorikoa.

1.1. Euskara hizkuntza

Euskararen normalizazioa lor dadin, garrantzitsua da zenbait faktore kontuan hartzea, besteak beste: hizkuntza eta kultur nortasuna, normalizazioa bera eta hizkuntzaren arlo eta faktoreak.

1.1.1. Hizkuntza eta kultur nortasuna

Herrialde baten izaeraren oinarria bere hizkuntza dela esan daiteke. Hizkuntzarik gabe, herrialdeak ez du nortasunik, ez du berezko izaerarik; identitaterik gabeko herria da. Gizarte orok du bere hizkuntza eta ondorioz bere hiztunek hizkuntza horretan komunikatzeko gaitasunaren beharra dute, bai behintzat herrialde horretan hizkuntza ofizial bakarra den kasuetan. Hizkuntzen kontua ordea, eremu zabala da, konplexua, eta are eta konplexuagoa euskararen egoera Euskal Herrian. Bertan, bertako hizkuntzaz gain ofiziala den beste bat ere bada, eta ondorioz, bertako hiztunek ez dute bertako hizkuntzan komunikatzeko beharrik, hizkuntza arrotzean komunikatzeko eskubidea izanik. “Euskaldunek gutxiengoa izaten jarraitzen dute beren lurraldean, hizkuntza euskara denean, aukera pertsonalen artean sarturik dago. Eta erdara, berriz, ezagutu eta erabili beharra dago; euskarak, beraz, ez du zinezko ofizialtasunik bere lurraldean inon” (Etxegoien, J.C., “Xamar”, 2011, 1).

Hori dela eta, euskararen erabilera ez da behar bestekoa. Hainbat faktoreren ondorioz, beste hizkuntzak ere indar handia du eta hainbatetan euskarari hegoak mozten dizkiola ere esan daiteke. Etorkinek ez dute bertako hizkuntza ikasteko beharrik sumatzen eta hori dela eta kanpotar euskaldunen kopurua ez da handia. Horrez gain, gaztelania hizkuntza

ofiziala izateak, erakunde publikoetan, komunikabideetan, eta abarretan ere badu eragina eta erraztasunak ematen dizkie erdara erabili nahi dutenei, euskaren erabileraren beharrik izan gabe; esaterako, gure lurraldean gehien irakurtzen den egunkaria gaztelaniaz idazten da. Ondorioz, euskarak ez du behar lukeen indarrik, jendeak ez baitu euskalduntzeko beharrik ikusten, komunitatearen hizkuntzari muzin egin eta kultur nortasunaren bilakaera oztopatuz. Xamarren ideiari jarraituz dikotomia batean bizi gara, izan nahi dugunaren (euskara hiztun arruntak lurralde normal batean) eta garenaren artean (elebidun ez sobera orekatuak, erdararen itsasoaren barnean).

Orain artekoa kontuan izanik, euskararen normalizazio bat lortzea beharrezkoa dela esan daiteke, hau da, euskararen erabilera eremu guztira zabaldu eta hedatzea; eta prozesu hau, Ulibarri txostenak (2013) (http://www.ulibarri.info/ulibarri/normalkuntza, eskuragarri 2013/05/09) dioen moduan, hezkuntza, politika eta kulturaren bitartez ematen den berrantolaketa baten ondorio da. “Euskararen normalizazio kontzeptuak, euskara bizitzako aspektu guztietan erabiltzeari egiten dio erreferentzia, euskararen egoera normalizatuan, euskarak edozertarako balio behar duelarik” (Esnaola Arribillaga, I., 2007, 1). Modu honetara, euskara beharrezkoa litzateke gure herrian komunikatu ahal izateko eta beharraren ondorioz erabilera egokitu egingo litzateke.

Euskal curriculumak dio, euskararen normalizazioa, zentzu zabalean ulertuta, herri euskaldun bat lortzea dela, sozialki elebakarra eta herritar eleanitzez osatua, ezinbestean, euskararen erabileraren gaitasun formala eta ez formala bermatu behar duelarik. Txepetxen ustetan 1987 normalizazioak botere politikoa hizkuntza komunitatearen zerbitzura jartzea eskatzen du eta hizkuntza bati ofizialtasuna eman behar zaio, kultur hizkuntza bezala onartu ahal izateko. Urrats hori ematen ez den artean, hizkuntza berreskuratzeko bidean hainbat oztopo aurkitzen dira. Tartean, hizkuntza komunitatearen ekimena, hala nola, gizartearen babes eta inplikazioa. Autorearen ustez:

- Hizkuntza gutxitu baten komunitateak ezin du estatuaren pausoen zain egon, lehen pausoa hiztun komunitateak batasuna lortzea baita.
- Hizkuntza komunitate baten normalizazioa bere hiztunak arduratzen dituen zerbait ez ezik, gizartea bere osotasunean inplikatzen duen zerbait ere bada.

Norbanakoak badu garrantzia normalizazio prozesu honetan, baina baita hezkuntzak, politikak eta kulturak ere, hauek baitira gizarte baten oinarrian dauden erakundeak eta prozesu dinamikoak sustatzeko giltzarriak. “Euskal komunitate baten balioaren erdigunean euskalduntasuna jarri behar dugu. Komunitate nortasuna eskuratu nahi badugu, elkartzen gaituen zerbaiten inguruan bildu beharko dugu: hizkuntzaren gaitasuna jarrera eta erabilera ezinbestekoak bilakatzen direlarik” (Amondarain, A., 1999, 5).

1.1.2. Normalizazioaren inguruan

Oskar Elizbururen (2012) aburuz, hizkuntza bat normalizatzea gizarte osoari dagokion lana da; euskararen normalizazioaren eremuan, eragile guztiek agertu behar dute konpromisoa, guztiek eman behar dituzte urratsak, izan ere, inplikazio errealik gabe normalizazioa lortzea ezinezko eginkizuna da (http://www.kontseilua.org/index.php?id_saila=54&id_edukia=459, eskuragarri 2013/05/06).

Txillardegik (1978) dioen moduan, Euskal Herriak elebitasuna behar du, hau da, bi hizkuntzetan moldatzeko gaitasuna. Baina elebitasuna ez da gauzatzen inguruko testuinguruan erabilpen berdintasunik ez dagoen bitartean, hau da, euskararen normalizazioa lortzen ez den bitartean. Bide honi jarraiki esan daiteke euskararen egoera diglosia egoera bat dela; hau da, A hizkuntza ofiziala izanik, B hizkuntzak ez duela estatus bera mantentzen, honek erabileraren gainbeheran eragin zuzena duelarik. Euskal Herrian beraz, elebitasun urria eta diglosia nabarmena ditugu.

Berriro ere Ulibarri Txostenaren arabera (2013) euskararen hedapena eman dadin, hainbat xede jorratu behar dira: lehenik, hiztun kopurua haztea, hori baita gure nahiaren eta beharraren helburua; horrekin batera, erabileraren maiztasuna handitzea eta erabilera hau funtzio eta eremu anitzetara helaraztea; eta azkenik, hizkuntza minorizatuaren, hau da, euskararen, presentzia areagotzen lagunduko duten erabilera arauak adostea.

Xede hauek, bere baitan dakarte, alde batetik, hizkuntzaren estandarizazioa, kodifikazioa, arautzea, etab., eta, bestetik, egunerokotasunean hizkuntzari dagokion estatusa bermatzera edo erabilera handitzera eramango gaituen prozesu sozio-politikoa. Xede hauen lorpenean, arestian aipatu bezala, hainbat eragilek parte hartu behar dute, besteak beste, eskolak.

Horrez gain, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko kide den Paul Bilbaok dio, normalizazio bat lor dadin, ezinbestekoak diren gutxieneko batzuk aldarrikatu behar direla (http://www.kontseilua.org/index.php?id_saila=54&id_edukia=459, eskuragarri 2013/05/11) (Ikus Irudia 1.1):

- *Kanpo esku hartzerik gabeko hizkuntza politikarako eskubidea*: Gaur egun, hizkuntza politika eraginkor bat eman dadin hainbat arazo eta oztopo daude. Hizkuntzaren normalizazioari buruzko erabaki ausartek esaterako, debeku irmoa jasan izan dute.
- *Estatus egokia*: Gure herriaren normalizaziora iristeko bidean, hizkuntzak estatus juridiko bat izan behar du. Euskarak ofiziala izan behar du bere lurralde osoan, honek, babesa ematen baitie euskaraz bizi nahi duten herritarrei.
- *Lehentasunezkoa*: Lehentasunezko hizkuntza izendatzeak euskararen aldeko politikak ahalbidetzeko gaitasuna eskaintzen du: instituzioetan, zerbitzu publikoetan, hedabideetan, irakaskuntzan, etab.

- *Ezagutu beharrekoa*: Euskara ezagutu beharrak bermatuko ditu herritarren arteko bizikidetza eta euskaraz bizitzeko hautua egiten duten herritarren nahia.



Irudia 1.1: Normalizaziorako helburu eta xedeak.

Pertsonek, euren inguruneko hizkuntzaren egoeraren arabera ikasten dute hizkuntza bat edo beste, hau da, normalizazio bat gertatuko balitz eta euskarak behar lukeen indarra hartuko balu gizarte eta instituzio mailan, euskaraz askoz ere jende gehiagok hitz egingo luke ingurua euskalduna bada, euskalduntzearen beharra ezinbestekoa baita.

Egun, euskara erabiltzeko joera edo beharra ikusten ez duen kide ugari nabaritzen da eta hau argi geratzen da Arrue ikerketak plazaratu dituen datuetan. Eginiko analisiaren ondorio orokorrei erreparatuz gero, datuak deigarriak eta kezkagarriak direla ikus daiteke.

Ikerketa honetan, euskararen lau erabilera aztertu dira: ikaskideekin gelan erabiltzen den hizkuntza zein den, ikaskideekin jolaslekuan,

irakasleekin gelan eta irakasleekin gelaz kanpo. Ebaluazio diagnostiko froga baten bitartez, LH4 eta DBH2-ko ikasleen datuak bildu dira (Ikus Irudia 1.2).

Ikaskideekin gela barruan, LH4-ko ikasleen %60ak euskaraz egiten du, DBH2-ko ikasleen %60ak berriz, gaztelaniaz. Jolastokian, LH4-ko ikasleen %59a gazteleraz aritzen da eta DBH2 mailan %75a. Irakasleekin, aztertutako bi ikasmailetan, gela barnean LH4-ko ikasleen %74ak euskaraz egiten du eta DBH 2 mailan %61ak. Gelaz kanpo berriz, irakasleei LH4-ko ikasleen %64ak egiten die euskaraz eta BDH2 mailako ikasleen %52ak.

Ikerketak dio, ikasleen eskolako euskararen erabilera orokorra batetik bostera ebaluatu behar izanez gero, batak dena erdaraz adieraziz eta bostak dena euskaraz, LH4 mailan ikasleen bataz bestekoa 3,26koa litzatekeela eta DBH2 mailan 2,60koa. Analisi horiek ikasleen eskolaz kanpoko hizkuntza giroak eskolaren baitako euskararen erabileran duen eragina adierazten dute, besteak beste, ikasleen hedabideen kontsumo hizkuntza gaztelania delako alde nabarmenarekin bi ikasmailetan.



Irudia 2.2: Arrue ikerketaren emaitza grafikoak. Iturria: Eusko Jaurlaritza. Soziolinguistika Klusterra. ISEI-IVEI.

Inkesta honen emaitzek, gizarte edo herriko hizkuntza giroak eskolaren baitako erabileran duen zeharkako eragina handia dela nabarmentzen dute. Hori kontuan hartuz, azpimarratzekoa da gure herria euskalduntzeak eta normalizazio bide bati ekiteak guztiz beharrezkoa izan behar duela euskararen erabilera sustatu dadin eta datu hauek alda daitezen. “Bide honetan garrantzitsua da euskarazko kultur produktuak ere ahalik eta kalitate handienekoak izan daitezen, gazte horiek euskaraz kontsumitzeko ohitura har dezaten” (Baztarrika, P., 2013, 3).

Irakasleek ere badute lan honetan euren garrantzia. Orain arte behintzat “euskararen erabilerari eutsi egin diote, eta eginahal horretan testuinguruko ezaugarri soziolinguistikoek ere, antza denez, ez dute euren jardunean eragiten” (Aldecoa Arana, M.A.,2011, 300).

1.1.3. Hizkuntzaren arlo eta faktoreak

X. Erizeren ustetan, euskararen hautaketa baldintzatzen duten hiru faktore daude:

1. *Irizpide psikosoziala*: Norbanakoak hautaketa bat egiteko orduan, dituen motibazioetan jartzen du arreta, hau da, norbanakoaren eta gizartearen arteko elkarrekintza da, non hiru irizpide dauden: lehena, hizkuntza batean nahiz bestean egiteko dugun hizkuntza gaitasuna da; bigarrena, talde sozialak beregandik espero duen hizkuntza da, hau da, komunitate batean hizkuntza bat nagusi denean, komunitate horrek bertara inguratzen diren guztiei hizkuntza horretan hitz egin dezaten eskatzen die, beraz, garbi dago eskolaren barnean zenbat eta nagusiago izan euskararen erabilera, orduan eta errazago izango dela bertara inguratzen direnen portaera komunikatiboa euskarara iraultzea; eta hirugarrena, solaskidearen hizkuntza dago, non ikasle batzuek aurrean dutenaren arabera euskaraz edo gazteleraz jokatuko duten, eta arazo honi norbanakoak soilik jar diezaioke erremedioa.
2. *Irizpide soziologikoa*: Eremu eta gizatalde batzuk hizkuntza jakin bati eta beste batzuk beste bati lotuta egoten dira. Eskolak ere hizkuntza

hautaketa egiten du, beraz, honen lana hizkuntza hautatzeko irizpide hau euskarara iraultzea da, esparru geografiko hau, euskararen aldeko mikroespazio bilakatuz.

3. *Irizpide antropologikoa*: Ikuspegi antropolinguistikoak komunitatearen kultur eta hizkuntz balioen eta komunitate partaidetza sentimenduen aldetik aztertzen du hizkuntzaren hautaketa.

Ondorengo diagramak aurrez aipaturiko guztia biltzen du (Ikus Irudia 1.3):



Irudia 3.3: Euskararen hautaketa baldintzatzen duten faktoreak.

Txepetxen (1987) aburuz hiru arlo landu behar dira euskara ikasi ahal izateko: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Eta aprendizaia prozesu hori burutu dadin bi bide jarrai daitezke, zeinak alde batetik ezberdinak badira ere, bestetik osagarriak diren:

- *Berezko ibilbidea edo aprendizaia naturala*: Hau, haurrak txikitatik burutzen duena da, hau da, inguruan entzuten duena erabiliz hizkuntza ikasteari ekitea.
- *Ibilbide naturala*: Hau, pertsona helduek hizkuntza bat ikastean egiten duten bidaia da, non motibazioak motor funtzioa betetzen duen.

Bi zirkuitu hauek elkartzen ez badira, etenak izango dira eta hizkuntzaren barneratzea edo hizkuntzaren jabekuntza ez da lortuko, bi hauen uztartzeak emango baitio norbanakoari hizkuntzaren arlo ez-formalean nahiz formalean ezagutza. Aipaturiko eten hauek ondorengoak izan daitezke:

- *Lehen etena*: Berezko ibilbidea egin arren, ibilbide naturala egin ez badu, egoera ez formaletan euskara erabiltzeko gaitasuna izango du, baina egoera formalean gaztelaniara joko du.
- *Bigarren etena*: Bide kulturaletik abiatzen denak, (euskaraz ez dakien norbait) bide kulturala behar bezala garatu nahi badu, ezinbestekoa izango du berezko ibilbidetik jasoko duen hizkuntza ez-formala edo lagunartekoa bereganatzea.

Beraz, hezkuntza eta gizarte mailako oreka bat eskuratu behar da euskararen erabilpen normalizatu eta egoki bat lortu nahi bada. Eremu formalean hezkuntzak bideratzen duen ezagutza gizarte arloan, hau da, eremu ez-formalean, uztartzen ez den bitartean, eta alderantziz, ibilbide naturala garatzen ez den bitartean, ez da prozesuaren bilakaera egokirik ematen. Hori dela eta, atal hauetako bakoitza ziurtasunez garatzeko ekimen osagarriak eta ardura berriak bereganatu behar ditu euskal eskolak, hori baita bere eginbeharra.

Normalizazio bat gerta dadin, behin eta berriz errepikatu moduan, jendeak euskaraz egitea guztiz beharrezkoa da. Beraz, nerabezaroa adin tarte garrantzitsua da, bertan erabakitzen baitu norbanakoak zein hizkuntza izango den hautatuko duena.

1.2. Euskara hezkuntzaren eremuan

Euskarak hezkuntzaren esparruan duen tokia ezagutzeko, kontuan izan behar dira honen hurbileko testuingurua eta normalizazioarekin duen harremana.

1.2.1. Hurbileko testuingurua

Arestian aipatu moduan, hizkuntza formala eta ez-formala lotu eta uztartzea benetan garrantzitsua eta beharrezkoa da euskara ikasteko unean. Hau lortzeko, ordea, arazo handiak izaten dira, eta honen isla da Ulibarri txostenaren eta Euskaraz Bizi txostenaren emaitzekin Paul Bilbaok nahiz Antton Amundarainek adierazten duten kezka.

Hezkuntza komunitatearen ezina handia da, lan egitearen poderioz denbora askoan ereindako uztaren emaitzak jasotzeko ingurune soziopolitikoaren eragina antzematen baita. “Eskolan egiten dena gobernuen menpe da, gobernuek agintzen dute, ez irakasleek. Gaur egun, eskolan, mezu nagusia, tamalez aski barneraturik sumatzen dena, ondorengoa da: Egin ezazu euskararen alde, baina hori soilik, gramatikaren alde, kontuan hartu gabe herria, kultura, historia… ez sartu politikan” (Etxegoien, J.C., “Xamar”, 2011, 2).

Jartzen diren trabez gain, eskola eraikinetik kanpo erabilera eremurik ez badago, alferrikakoa da eskolan egindakoa, kanpoan ikasleek ez baitute euskaraz egingo. Hainbat eskola eta ikastolak, Beasaingo Andramendi eskolak besteak beste, ikasleak euskaldunak izateaz gain, euskaltzaleak izatea ere bilatzen dute, baina eskolak euskalduntzearen alde bere funtzioa betetzen badu ere, eskola eta bere ingurune soziolinguistikoaren arteko harremana kontuan izan behar da.

Xamarrek dioen moduan, Txepetxen ustetan hiru arlo landu behar dira eskola barnean eta gizartean: motibazioa, ezagutza eta erabilera (Ikus Irudia 1.4).



Irudia 4.4: Normalizazioaren lorpenerako landu beharreko arloak eta hauen hautaketa baldintzatzen duten faktoreak.

Motibazioa lantzea benetan garrantzitsua den zeregina da, are gehiago erdararen presentzia nabarmena kontuan harturik. Gakoa ondorengoa da: nola egiten da bizitzeko beharrezkoa ez den hizkuntza baten aldeko diskurtsoa? Badugu herri bat, kultura bat… eta hori landuz lortu behar da motibazioa. Motibazio hau ikasleek behar dute, eta honen emaile diren gurasoek; eta horretan lagungarri behar lukete administrazio eta arduradun politikoek ere. Esaterako, ikasleak etxean euskara erabiliz motibatu daitezke eta hizkuntza goraipatzeak ere norbanakoarengan motibazioa sustatu dezake, lagunen arteko harremanetan euskara erabiltzera bultzatuz eta animatuz.

Eskolari dagokionean euskara eta euskal kulturaren ezagutza lortzeko berriz, material propioa sortu behar da, herri mailakoa eta orokorra; horrela, kultura garatzea eta zabaltzea lortzen baita eta horrek motibatu egiten baitu. Arlo honen abiapuntua familiako hizkuntza-transmisioa da eta jarraian datorrena irakasleen lana, hezkuntza komunitatearen elkarlanaren beharra azpimarratuz. Azken gakoa berriz, erabilera da, eta berriro ere Txepetxen esanetan oinarritzen da Xamar. Erabilera sustatu dadin, hizkuntzak zinez ofiziala izan behar du batetik, bai behintzat erdarak bezain ofiziala, eta bestetik berriz, gizarte arazoa dela onartu. Eskolak ahal duena egiten du, baina gizartea ikastetxetik kanpo dago, eta herri honetan zerbait egin nahi bada, politika egin behar da; hizkuntza politikan oinarritua. Erabilera hau ikasleei dagokie eta egoera normalizatuan, bizitzako esparru eta funtzio guztietan erabili behar da.

1.2.2. Normalizazioa eta eskola

Azaldurikoak kezkagarria badirudi ere, gero eta ikasle kopuru handiagoa ateratzen da eskolatik euskaldunduta. “Hala ere, euskararen erabilera da kezka nagusia euskararen normalizazio prozesuan, erabilera delako normalizazio mailaren adierazle nabarmena” (Euskararen Kontseilua, 2009, 1).

Halere, normalizazioaren arazoa autore batzuk eskolaren arazotzat jotzen badute ere, beste batzuk, Xamarrek kasu, zera diote: “euskararen normalizazioaren arazoa ez da pedagogikoa soilik, soziala da, alegia, soziopolitikoa. Kalean dagoen zerbait da, eskolak ezin du konpondu” (Etxegoien, J.C., “Xamar”, 2001, 3). Txillardegiren hitzetan hizkuntzen arazoa soziologi arazoa denez, politikaren eta ekonomiaren mailan erabakitzen da. Normalizazio prozesuan eskola beharrezko tresna da. Euskaraz hitz egiteko eta bizitzeko espazioa eskaintzen du eta komunikaziorako eta erabilera sustatzeko baliogarria dela ere erakutsi du. Euskararen erabilera gehitzeko elkarlanean aritu behar dira ikastetxeak, familiak, kirol elkarteak, aisialdi taldeak, euskara eta kultura elkarteak, udalak, administrazioak eta beste asko, izan ere, “eskolak bakarrik ezingo

luke lortu euskararen normalizazioa, eta, aldi berean, eskolaren lanik gabe ezinezkoa litzateke” (Euskararen Kontseilua, 2009, 2).

Hezkuntza eta ikastetxeen eremuan, D eredua kasu, haurrek proportzio handian erabiltzen dute euskara eta orokorrean gaztetxoen artean euskararen erabilera indartzeko lehen urratsa burutzen ari da: denek euskara ezagutzea hain zuzen ere. Horrela, euskaraz ikasten duten haur eta gazteen kopurua gora egiten ari dela esan badaiteke ere, 12-16 urte bitarteko haurrengandik jasotako emaitzak ez dira behar luketenak, txikitan euskaraz hitz egiteko hartutako ohitura nerabezaroan ahuldu egiten baita, aprendizaia naturala eta ibilbide naturalaren arteko etena sortuz, euskararen kontseiluak dioen moduan. Horrela beraz, hezkuntza komunitatea ezintasun baten aurrean aurkitzen da.

Ezintasun horri aurre egiteko, eta kohesio soziala bermatzeko nahitaezkoa da ikasle guztiei ezagutza berdinak eskaintzea eta ondorioz euskararen ezagutza bermatuko duen ikas-eredu orokortua izatea. Hezkuntza komunitatea horren jakitun da, baina badira gure hizkuntzaren berreskurapen prozesua galgatzen dutenak ere, eta hauek ere horren jakitun dira. Oztopo bat baino gehiago izaten dira, eta horren adibide da esaterako, Wert ministroak aurkeztutako LOMCE legearen zirriborroa, gure herrian ikasle euskaldunak bermatu dituen hezkuntza eredua kanpoan utz baitezake, Paul Bilbaok dioen moduan.

STEE-EILAS sindikatuaren txostenak dioenaren arabera, eleaniztasuna babestea eta etapa guztietan gaztelania ikastea derrigorrezkoa izatea babesten du aipaturiko legeak. Atzerriko hizkuntzan jariotasuna lortu behar dela planteatzen da, lanerako gaitasuna eta handinahi profesionalak sustatzeko, baina hizkuntza propioaren ikaskuntza baztertu egiten da eta murgiltze linguistiko programak arrisku handian jartzen dira; eta gure kasuan baita euskararen normalizazioa ere.

Horrez gain, legeak, 18. artikuluan dio eremuak lau zatitan banatzen direla: tronkalak, beharrezko espezifikoak, espezifikoak eta azkenik,

espezialitatekoak. Azken honetan ondorengoa esaten duelarik: “Lengua Cooficial en las autonomías en las que exista y otras de oferta libre”.

Horrez gain, badira eskubideak urratzen dituzten beste lege batzuk ere, Vascuenceren legea esaterako. *Kaier Gorria* aldizkariak dioen moduan, lege honek Nafarroa hiru zonaldetan banatzen du: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna. Banaketa hau egiterako orduan baina, irizpide soziologikoen ordez, irizpide politikoak jarraitu ziren. Eremu mistoan, euskarak eskubide murritz batzuk ditu, eta eremu ez-euskaldunean berriz, ez du hizkuntza eskubiderik, modu honetan, zonalde honetan euskaraz bizi nahi dutenei oztopo nabarmenak jarriz. Hau gutxi balitz, aldizkariak dioena oinarri hartuz, ingelesa ikasi beharraren aitzakian, gero eta eskari handiagoa duen D eredua baztertzeko ahaleginak biderkatu egin dira.

Zonifikazioaren ondorioz, beraz, eremu mistoan euskarak ez du aurrera egiteko behar adinako indarrik eta laguntzarik eta eremu ez-euskaldunean hiltzera kondenatua dago. Euskarari egiten zaion bazterketa eta zapalketa agerian gelditzen dela ikus daiteke, normalizazioari oztopo handiak jarriz.

Hizkuntzen Europako Batzordeak bere txostenean hizkuntza gutxituak babestu eta lagundu egin behar direla esaten du, beraz orain arte esana harrigarria gertatzen da. Horrez gain, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen gutuneko 22. artikuluaren arabera, batasunak, kultur, erlijio eta hizkuntza aniztasuna errespetatu behar ditu (http://ec.europa.eu/languages/languages-of-europe/regional-and-minoritylanguages_es.htm, eskuragarri 2013/05/08).

1.3. Hizkuntza eta hezkuntza

Jakinekoa da hizkuntzak toki nabarmena duela hezkuntzan, beren arteko loturaren nondik norakoak honakoak izanik:

1.3.1. Hizkuntza komunikazio baliabide

Hizkuntza gizatalde batek elkarrekin komunikatzeko duen hitzezko adierazpide bezala ulertzen da, eta hezkuntza berriz, gizatalde horretako kide den edonor bere ahalmenak garatuz gizartean bizitzeko prestatzen duen prozesua.

Zenbait herrialdetan hizkuntzaren arloko trebatzea bide naturaletik eskuratu dezakete biztanleek, baina beste batzuetan (zibilizatuak izendatzen ditugunetan), aldiz, ama hizkuntza gizakiaren edo norbanakoaren lehen urteetan bide naturaletik eskuratzen bada ere, hezkuntza sistema izaten da jaiotzez eskuratu eta barneratzen ari den ama hizkuntzaren arloko formazioa eta trebatzea bideratzen eta ziurtatzen duena. Beraz, hezkuntza hizkuntza baten bilakaera eta erabilpenari dagokionean giltzarri bakarra ez dela onartzen bada ere, berebiziko garrantzia duen faktoretzat jotzen da.

Beraz, gizakia hezten doan neurrian, bere ahalmenak garatuz gizartean bizitzeko prestatu eta gaitzean datza hezkuntza, gizartean bizitzeko eskuratu beharreko gaitasunen artean komunitate kideekin harreman eta erlazioak bideratuko dituen hizkuntzaren inguruko formazioa hezkuntza sistemaren esku geratzen delarik. Honek erantzukizun handia suposatzen du hezkuntza arloko egitura, diseinu eta ereduez arduratzen diren erakunde eta agente guztientzako; eta are eta gehiago, hizkuntza hori testuinguru sozio-politiko horretan erreferentziazko mintzaira bezala onartua ez dagoen kasuan, esaterako, euskararen egoeraren kasuan.

Azken hamarkadan hezkuntza sisteman irakaskuntza arloko bidea eratu duen arautegia, oinarrizko hezkuntzari dagokionean, Jacques Delorsek etorkizuneko herritarren hezkuntzan ezinbesteko jotzen dituen lau oinarri edo zutaberen inguruan eratu da: ezagutzen ikasi (kultura arloko

ezagutza edo eduki ezberdinak eskuratu), egiten ikasi (eduki horiek ulertzeko gai izan) eta izaten ikasi (norbanakoaren autonomia eta auto-estimua).

1.3.2. Egungo eredua: konpetentziak eta hizkuntza

Europako Parlamentuak, bertako kide diren estatuetako biztanleei zenbait konpetentzia eskuratzeko proposamena luzatu zien, formazio eta hezkuntza eremuan aintzat hartu zitzaten. Orotara zortzi izan ziren konpetentzia hauek: ama hizkuntzan komunikatzeko konpetentzia; atzerriko hizkuntzan komunikatzeko konpetentzia; konpetentzia matematikoa eta zientzia eta teknologietako konpetentzia; konpetentzia digitala; ikasten ikasteko konpetentzia; pertsonen arteko konpetentzia, kultura artekoa, konpetentzia soziala eta hiritartasunekoa; eta azkenik, enpresa izpiritua eta adierazpen kulturalaren arloko konpetentzia.

Prozesuak aurrera egin ahala, konpetentzien proposamena Derrigorrezko Hezkuntzari dagokionean egokitu egin zen gurean, aipatu berri den konpetentzia zerrendako lehen biak (ama hizkuntzan komunikatzeko konpetentzia eta atzerriko hizkuntzan komunikatzeko konpetentzia) konpetentzia bakarrean elkartu ziren: konpetentzia linguistikoa deiturikoan, hain zuzen ere (Ikus Taula 1.1).

Taula 5.1: Konpetentzien laburpen taula.

FUNTSEZKO KONPETENTZIAK	LOE KONPETENTZIAK
1. Ama hizkuntzan komunikatzeko konpetentzia	1. Komunikazio linguistikorako konpetentzia
2. Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko konpetentzia	2. Konpetentzia matematikoa
3. Konpetentzia matematikoa eta zientzia teknologietako konpetentzia	3. Ingurune fisikoaren ezagutza eta harremanetarako konpetentzia

4. Konpetentzia digitala	4. Informazioaren trataera eta konpetentzia digitala
5. Ikasten ikasteko konpetentzia	5. Gizatasun hiritartasun konpetentzia
6. Pertsonen arteko konpetentzia, kultura artekoa, konpetentzia soziala eta hiritartasunekoa	6. Konpetentzia kulturala eta artistikoa
7. Enpresa izpiritua	7. Ikasten ikasteko konpetentzia
8. Adierazpen kulturalaren arloko konpetentzia	8. Autonomia eta ekimen pertsonalaren konpetentzia

Lekuan lekuko egoera sozio-kulturalari erreparatuz gero *ama hizkuntza* adierazpena galdu egiten da, esamolde hau esanguratsu bilakatuz euskararen egoera eta testuingurua aintzat hartzen denean, batez ere bi arrazoi nagusiren ondorioz. Adierazpen honek elebitasunaren fenomenoa kontuan hartzeko ikuspegia eta euskara lehen hizkuntza bezala eskuratzen eta erabiltzen duten hiritarren egoeraren azalpena eskaintzen ditu batetik; eta ama hizkuntzak ezagutza eta ikaskuntzak burutu edo eskuratzerakoan duen garrantziari erreparatzeko aukera ere mahai gainean jartzen du bestetik.

P. Perez eta F. Zayas autoreek beren *Competencia en comunicación lingüística* liburuan diotenez konpetentzia hauek ez dira hezkuntza formalean soilik garatzen edo eskuratzen, prozesuak gelako espazioa gainditzen baitu.

Konpetentzia linguistikoak berezko gehigarri edo ezaugarri bat ere badu, konpetentzien artean besteak eskuratzeko mugarri edo giltzarri izatearena alegia. Izan ere ama hizkuntza komunikazio eta ezagutzarako oinarria dela onartzeak, arreta berezi bat eskatzen du, eta euskal komunitatearen hizkuntza bilakaerari dagokionean hausnarketa zentzudun baten beharra azaleratzen du, irizpide sozio-politiko eta kulturalen parean irizpide psiko- pedagogiko sendoak finkatuz.

Hezkuntza arloan elebitasun eta eleaniztasuna egunerokotasunean dauden une honetan, norbanakoaren garapen eta formazio prozesuan hizkuntza komunitatearen bilakaera naturalaren aldeko hautua eta hausnarketa egitea ezinbesteko dela esan daiteke, bata bestearen osagarri izanik egoki bilakatu daitezkeen ideiari jarraituz.

1.3.3. Euskara eta curriculuma

Euskal curriculumak dioenaren arabera gaur egun indarrean dagoen curriculumarekin euskararen normalizazioa lortzea benetan zaila den eginkizuna da; beraz, beharrezko da zenbait aldaketa ematea. Curriculumean, euskarak indar handiagoa behar luke, modu honetan, eskoletatik ateratzen diren haur euskaldunen kopurua handiagoa izan dadin.

Argi izan behar da hizkuntza dela giza garapenerako tresna nagusia eremu guztietan. Hizkuntzak gaitasun nagusiak eta konpetentzia orokorrak garatzeko duen garrantzia medio, curriculumeko arloen helburua ikasleei gizarte bizitzaren eta bizitza pertsonalaren esparru guztietan hizkuntzak behar bezala erabiltzen irakastea da.

Curriculumak, batetik, euskarak bere hizkuntza eremuan behar duen garapena lortzea izan behar du helburu, eta bestetik, ikasleak beste hizkuntzak hitz egiteko gai izan daitezen lortzea. Horretarako, beharrezkoa da Euskal Herrian bizi direnek euskararen normalizazioarekiko konpromiso aktiboa adieraztea eta euskara hizkuntza nagusitzat hautatzea.

Aurrez aipatu moduan, gaur egun indarrean den curriculumarekin eta legediarekin, eskolak ez du behar adina euskalduntzen. Aztikerrek eginiko datu bilketa kontuan hartuz, ondorengoa ikus daiteke:

- Hiru ikasleetatik bi ez da euskaldunduko:
  - Klase guztiak gazteleraz edo frantsesez jasotzen baditu euskarazko irakasgairik landu gabe (ikasleen %20,7; 89.666 ikasle).

- Klase guztiak gazteleraz edo frantsesez jasotzeaz gain, euskara irakasgaia lau orduz astean soilik lantzen badute (ikasleen %24,6; 106.269 ikasle).
- Zenbait klase erdaraz eta beste zenbait euskaraz jasotzen baditu (ikasleen %16,7; 72.419 ikasle).
- Klase guztiak euskaraz jasotzen baditu eta gaztelera edo frantsesa irakasgaia lantzen badu astean lau orduz (ikasleen %38; 164.375 ikasle).

Beraz, ikasleen euskalduntzea D ereduak soilik bermatu dezakeela (bermatu baldin badezake) kontuan hartuz, euskalduntzeko aukera izango luketen ikasleak %38 baino ez direla ondorioztatzen da.

- Euskaldundu gabeko belaunaldiak aterako dira urtero:
  - Hurrengo hemezortzi urteetan euskaldundu gabeko 268.354 euskal ikasleek amaituko baitituzte beren ikasketak.
  - Hau da, bataz beste 14.908 ikasle urtero.
- Euskaraz ikasteko aukera bera ukatu egiten da hainbat eskualdetan:
  Euskal herriko hainbat eskualdetan euskaraz ikasteko aukera bera ukatu egiten da, eta horrez gain, euskaraz ikasteko oztopoak jartzen ditu administrazioak (Nafarroa Garaiko hegoaldean, Behe Nafarroan, Lapurdin, Zuberoan). Alde batetik, ez dute baimentzen euskarazko irakaskuntza sare publikoan, eta bestetik, Ikastolei zenbait oztopo jartzen dizkiete gainera.

Beraz, kontzientziazko lana ez da burutzen eta kontzientzia linguistikoa sustatzeko ahaleginak oso urriak dira, faktore hau izanik esanguratsuenetakoa jakintza maila eta erabileraren arteko desfasea ulertzeko. Hizkuntzaren estatusa oso modu apalean lantzen da, ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan inolako segidarik gabe eta ebaluatzeko inongo irizpiderik finkatu gabe. Euskararen irakaskuntza osoa izan dadin bi atal hauek, estatusa eta corpusa modu bateratu eta osagarrian irakastea beharrezkoa da.

Argi izanik helburu nagusia euskararen normalizazioa dela eta euskal herritar guztiek beren herriko hizkuntza ezagutzeko eta erabiltzeko duten eskubidea aldarrikatuz, beharrezkoa da curriculumean argibide batzuk kontuan izatea.

- Edukiei dagokienez:

  Dauden edukiak alde batera utzi gabe, beste zenbait sartzea ere garrantzitsua da normalizazio batera iritsi nahi bada, besteak beste:
  - Hizkuntzaren inguruko kontzeptu eta azalpen teorikoen lanketa.
  - Euskararen jatorria behar den moduan lantzea.
  - Euskararen bilakaera historikoaren ezinbesteko lanketa.
  - Euskara batuaz gain ikasleek beren inguruko euskalkiak, tokian tokiko ñabardurak kontuan hartuz, ezagutu eta erabiltzea, euskara batuaren ekarpen gisa.
  - Hizkuntza eta herriaren arteko lotura azpimarratzea.
  - Hizkuntza formala lantzerekin batera, beharrezkoa da eguneroko erabilpenari dagozkion lagin ez-formalak ezagutzea.
- Prozedurei dagokienean:

  Prozedurak kontuan hartuz, zenbait aldaketa ematea ere beharrezkotzat jotzen da, esaterako:
  - Euskararen bilakaera historikoa eta hiztunen ezaugarriak sailkatzea.
  - Euskara hizkuntzen munduko mapan kokatzen jakitea.
  - Norberak bere ingurua ezagutzea, ingurune hurbiletik abiatuz.
  - Hezkuntza formala eta ez-formalaren arteko osagarritasuna ulertu eta praktikan jartzea.
  - Gaitasun kritikoa indartzea.
  - Erabileraren garrantziaz ohartzea eta euskararen hiztun aktibo bilakatzea.
  - Ahozkotasuna lantzearen garrantziaz jabetzea.
  - Esparru funtzionalean euskararen egoera baloratzeko gaitasuna izatea.

- Balioak kontuan hartuz gero:

  Euskararen aldeko sentimendua piztea eta indartzea beharrezkoa da erabilerari dagokionez, euskara jakin eta erabiliko duten herritarrak behar baitira. Horretarako garrantzitsua da:
  - Euskararekiko maitasuna bultzatzea.
  - Hizkuntza minorizatuei elkartasuna adieraztea.
  - Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza eta norbanakoarena dela sentitzea.
  - Beste hizkuntza eta kulturekiko errespetua indartzea.
  - Dagozkigun hizkuntza eskubideen jabe izatea.
  - Euskararen berreskurapena geure eskuetan ere badagoela ulertzea eta barneratzea.
  - Euskararekin gozatzen ikastea.

2. ATAL PRAKTIKOA

Atal praktikoaren helburua, atal teorikoan azalduriko hainbat kontzepturen egiazkotasuna frogatzea da, hau da, atal teorikoan ikusitakoa praktikara eramatea, nolabait esatearren. Eginkizun hau bete ahal izateko, hainbat aukera ezberdin jorratu ostean, galdetegi bat luzatzea iruditu zait egokiena (Ikus A. Eranskina). Modu honetara, normalizazioa oinarritzat izan duten galdera sinple batzuen bitartez, errealitatea eta teoriaren arteko aldea zenbaterainokoa den aztertu dut.

2.1. Galdetegiaren deskribapena

Aurrez azaldu moduan, eskolak, garrantzia handia du normalizazio prozesuan eta beraz, galdetegia hezkuntzaren munduan lan egiten duen jendeari helarazi diot. Horrela, galdetegiaren erantzule izango dira, bai Lehen Hezkuntzan lan egiten duten euskarako irakasleak, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lan egiten dutenak eta baita Unibertsitate mailako irakasleak ere.

Horrez gain, galdetegia burutzeko aukeratu beharreko eremu geografikoa zehaztea ere garrantzitsua da. Hori dela eta, Euskal Autonomi Erkidegoko eta Nafarroako hainbat adituei egin diet galdeketa, bertako euskal hiztunen eremua zabala dela kontuan izanik. Iparraldean jarraitzen den curriculuma Frantziar estatuko bera denez, hau albo batera uztea erabaki dut.

Erantzun beharreko galderak atal teorikoari lotuak izan dira, honek jarraitzen duen ordena bera jarraituz, marko teorikoan jorraturiko azpi atal bakoitzetik galdera bat edo beste agertzen delarik. Azpi atal hauek, galdetegia deskribatzen den taulan (Ikus Taula 2.1) aipatzen dira, galdera bakoitza zein ataletatik egina dagoen egiaztatu ahal izateko.

Galdera sorta hau biltzen duen txostena, zazpi orrialdez osatua dago. Azalean, galdetegiaren helburuarekin batera, erantzuten duenak berari buruzko zenbait datu adierazi behar ditu, besteak beste, bere izen-deiturak, euskararekiko duen harremana (ikasketak, lana, etab.) eta baita galdetegia betetzen duen eguna ere; bertan, lanari dagokionean galdetegia anonimoa izango dela aipatzen da, informazio hori erantzunen azterketa egitean sailkapen bat egiteko soilik erabiliko delarik.

Lehen orrialdean hasten diren galderak konkretuak eta itxiak dira, hau da, erantzuten duenak eskaintzen diren aukeren artean egokiena edo egokienak hautatzeko aukera du, nahiz eta zenbait galderetan beren aipuak, ekarpenak edota iritziak luzatzeko aukera ere baden; izan ere, aurkezturiko aukerez gain, adituek duten ikuspuntua edo egiteko dituzten aipamenak jasotzea ere zinez garrantzitsua eta interesgarri baita.

Galdetegia osatzen duten 17 galderek ezaugarri ezberdinak dituzte, bakoitza modu ezberdin batean planteatu baita. Honakoak dira bertan aurki daitezkeen galdera mota posibleak:

1. *Aukera bakarreko galderak*: marko teorikoan aipaturikoarekin zerikusia duten galderak luzatu eta erantzuleak eskaintzen diren aukeren artean bakar bat hautatu beharko du.

2. *Aukera anitzeko galderak*: marko teorikoan aipaturikoarekin zerikusia duten galderak luzatu eta erantzuleak eskaintzen diren aukeren artean erantzun bat edo bat baino gehiago hautatu beharko du/ditu.
3. *Aukera bakarreko galdera eta ekarpena egiteko aukera*: marko teorikoan aipaturikoarekin zerikusia duten galderak luzatu eta erantzuleak eskaintzen diren aukeren artean bakar bat hautatu beharko du. Halere, bere ekarpena(k) egiteko edota bere iritzia zabalago azaltzeko aukera izango du ondoren.
4. *Galdera bikoitza*: marko teorikoan aipaturikoarekin zerikusia duen arazo bat planteatzean bi galdera luzatu eta erantzuleak eskaintzen diren aukeren artean bakar bat hautatu beharko du
5. *Puntuaketa galderak*: marko teorikoan aipaturikoarekin zerikusia duen galdera bat luzatu eta erantzuleak eskaintzen diren aukerak puntuatu behar ditu 1-etik 4-rako balioekin bere ustez hauek duten garrantziaren arabera.
6. *Ehunekoen galderak*: marko teorikoan aipaturikoarekin zerikusia duen galdera bat luzatu eta erantzuleak eskaintzen diren aukerak puntuatu behar ditu ehunekoetan bere ustez duten garrantziaren arabera.

Galdetegia osoki aztertuz berriz, honakoa da bere deskribapena (Taula 2.1):

Taula 2.1: Galdetegiaren deskribapen taula.

GALDERAREN ZENBAKIA	ATAL TEORIKOA	GALDERA MOTA
1	Euskara hizkuntza: Hizkuntza eta kultur nortasuna	a, b, c, d, aukerakoa: Aukera bakarra
2	Euskara hizkuntza: Hizkuntza eta kultur nortasuna	a, b, c, d, e, aukerakoa: Aukera bakarra

3	Euskara hizkuntza: Hizkuntza eta kultur nortasuna	a, b, c, d, aukerakoa: Aukera bakarra
4	Euskara hizkuntza: Hizkuntza eta kultur nortasuna	a, b, c, d, aukerakoa: Aukera anitzekoa
5	Euskara hizkuntza: Hizkuntzaren normalizazioa	a, b, c, aukerakoa: Aukera bakarra Norberaren ekarpenetarako aukera
6	Euskara hizkuntza: Hizkuntzaren normalizazioa	a, b, c, d aukerakoa: Aukera bakarra Galdera bikoitza
7	Euskara hizkuntza: Hizkuntzaren normalizazioa	Puntuaketa galdera (1-4)
8	Euskara hizkuntza: Hizkuntzaren normalizazioa	a, b, c, d, e, f, aukerakoa: Aukera anitzekoa Norberaren ekarpenetarako aukera
9	Euskara hizkuntza: Hizkuntzaren arloak eta faktoreak	a, b, c, d, aukerakoa: Aukera bakarra
10	Euskara hizkuntza: Hizkuntzaren arloak eta faktoreak	Ehunekoetan puntuatzeko galdera
11	Euskara hizkuntza: Hizkuntzaren arloak eta faktoreak	a, b, c, d, aukerakoa: Aukera anitzekoa
12	Euskara hizkuntza eremuan: Hurbileko testuingurua	a, b, c, d, aukerakoa: Aukera anitzekoa

13	Euskara hizkuntza eremuan: Normalizazioa eta eskola	a, b, c, aukerakoa: Aukera bakarra Norberaren ekarpenetarako aukera
14	Euskara hizkuntza eremuan: Normalizazioa eta eskola	a, b, c, d, e, f, g aukerakoa: Aukera anitzekoa
15	Euskara hizkuntza eremuan: Normalizazioa eta eskola	a, b, c, aukerakoa: Aukera bakarra Norberaren ekarpenetarako aukera
16	Euskara hizkuntza eremuan: Normalizazioa eta eskola	a, b, c, aukerakoa: Aukera bakarra
17	Euskara eta hizkuntza: Euskara eta curriculuma	a, b, c, aukerakoa: Aukera bakarra Norberaren ekarpenetarako aukera

Galdetegi honi esker lorturiko emaitzak bildu ostean, hauek aztertu eta irudikapen grafikoen bitartez adierazi ditut, mailaka sailkatu (L.H., D.B.H. eta Unibertsitate maila) eta galdera bakoitzari dagokion ondorioa ateratzeko. Atal praktiko hau laneko atalik garrantzitsuena dela esan daiteke, aurrez azalduriko guztiari erreferentzia egiten dionez, lanaren azken ondorioen oinarri izango baita.

2.2. Emaitzen azalpena

Jarraian, galdetegian jasoriko emaitzak bildu, aztertu eta grafikoki adierazi ditut euren artean alderatu ostean zenbait ondoriotara heltzeko. Galdetegia luzatu dieten irakasle eta adituak hiru eremutan banatu ditudanez, lorturiko erantzunak ere honelaxe banatuko ditut: alde batetik, L.H. mailan jasotakoak, bestetik berriz, D.B.H eta Batxilergo mailetan jasotako emaitzak eta azkenik Unibertsitate mailan jasotakoak.

Emaitzen adierazpena grafikoki egitearen funtsezko arrazoia, hauek irakurlearentzat adierazgarriago eta ulergarriago egitea izan da. Beraz, helburu hau lortu asmoz, galdera bakoitzak hiru eremuen alderaketa adieraziko duen grafiko propioa eta dagokion mailakako azalpen edo analisi labur bana hartuko ditu bere baitan. Galdetegiko galdera gehienen emaitzak barra bidezko grafikoen bitartez adierazi baditut ere, puntuaketa bidez (1-etik 4-ra puntuatuz, zein balioa ehunekotan emanez) erantzun beharreko galderen erantzunak, grafiko zirkular zein piramidalak erabiliz adierazi ditut, hauek modu argiago batean ikusi ahal izateko. Horrez gain, galdera guztiak ere beren emaitzekin batera adierazi ditut irakurleari lana errazteko asmoz.

- *Galdetegien emaitzak LH mailan:* Lehen Hezkuntzari dagokionez, galdetegiak Ordiziako, Zaldibiako, Leitzako, Tuterako eta Fontellaseko ikastetxeetan lan egiten duten irakasleei helarazi dizkiet. Zenbait zailtasun izan baditut ere tarteko, galdetegi guztiak jasotzeko aukera izan dut azkenean. Galdetegia honela banatzearen hautaketaren helburua, urruneko bi zonaldetako iritziak kontuan hartzea izan da, modu honetara aberastasun handiagoa izateko eskuraturiko emaitzetan nahiz eta horrek ez duen oztopatzen bi irakaslek iritzi bera izatea normalizazioaren gaiari dagokionean. Aipatzekoa da erantzun anitzeko galderaren emaitzak ez duela %100 ematen batura egitean, izan ere, aukeratuak izan diren erantzun guztiak hartu baititut kontuan grafikoak egitean; hau da, galdeketa lau irakaslek erantzun badute maila batean eta hauetako batek bi erantzun eman badizkio galdera bati (*a* eta *c* aukerak esaterako), eta gainerakoek erantzun bana, grafikaturiko emaitzen

batura pasa egiten da %100-etik, 4 erantzun hartu beharrean kontuan, 5 hartu ditudalako.

- *Galdetegien emaitzak DBH mailan:* Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokionean berriz, Lazkao, Ordizia, Beasain, eta Aguraingo irakasleei pasa diet galdetegia, euskal hizkuntza komunitateko txoko ezberdinetako iritziak jasotzeko aukera izan nahian. Hemen ere izan dut zailtasun bat edo beste, baina galdetegi guztiak lortzeko aukera izan dut beste behin ere. Galdera batzuen erantzunetan izandako gaizkiulertuak medio, erantzun gabeko galdera bat edo beste jaso dudan arren, horrek ez du azken emaitzetan ondoriorik izan. Kasu honetan ere gauza bera gertatzen da erantzun anitzeko galderetan, hauen emaitzak argitara ematen diren grafikoetan ehunekoen baturak %100-etik pasa egiten baitira.
- *Galdetegien emaitzak Unibertsitate mailan:* Unibertsitate mailara luzaturiko galdetegiak, Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) zein Euskal Herriko Unibertsitate Publikoko (EHUP) irakasleek bete dituzte. Azken kasu honetan lorturiko emaitzak benetan garrantzitsuak izan dira lan honen osaketarako, hauetariko batzuk irakasleak izateaz gain gaiaren inguruko adituak ere badirelako, alor hau ikertzen jarduten direlarik. Horrez gain, kontuan izan behar da galderak aurrez aurre egiteko zailtasunak medio, galdetegiak mezu elektroniko bidez bidaliak izan direla, honek galdera bat edo beste erantzun gabe jasotzea ekarri duelarik berarekin. Beraz, hutsune hauek direla-eta, zenbait grafikotan, ehunekoen baturak ez dira %100era iristen. Beste batzuetan aldiz, aurrekoen moduan, ehunekoen batura pasa egiten da %100etik erantzun anitzeko galderetan.

2.3. Emaitzen analisia

Jarraian, galdetegietatik lorturiko emaitzen analisi sakon bat egin dut, erantzunak grafikoki azaldu eta aztertzeaz gain, irakasle eta adituek egindako zenbait ekarpen eta emandako zenbait adibide ere azalduz:

1. *"Euskaldunek gutxiengoa izaten jarraitzen dute beren lurraldean, hizkuntza euskara denean, aukera pertsonalen artean sarturik dago. Eta erdara, berriz, ezagutu eta erabili beharra dago; euskarak, beraz, ez du zinezko ofizialtasunik bere lurraldean inon" (Etxegoien, J.C.,"Xamar", 2011).*

   Adierazi ezazu baieztapen honekiko zure adostasuna aukera egokia azpimarratuz:



Irudia 2.1: 1. Galderaren erantzunak.

- *L.H. maila*: Lehen Hezkuntzako irakasleei dagokienez, galdera honetan denak daude guztiz ados Xamarrek dioenarekin, hau da, euskarak ez duela zinezko ofizialtasunik bere lurraldean inon. Beraz, adostasuna erabatekoa da maila honetan.
- *D.B.H. maila*: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lan egiten duten irakasleak ere bat datoz Juan Carlos Etxegoienek dioenarekin. Kasu honetan ordea, ez da adostasun osorik lortu *ados* eta *guztiz ados* daudenen artean, nahiz eta adostasuna erabatekoa izan, maila ezberdinean baloratu baitute berau. Halere, agerian geratzen da behintzat Xamarrek dioenak zentzua baduela.
- *Unibertsitatea maila*: Juan Carlos Etxegoienek dioenarekin ados daude orokorrean unibertsitate mailako galdetegiaren erantzuleak. Gehiengoak

ados aukera hautatu du eta bakarrak egin du *guztiz ados* hautua. Beraz, baliteke Xamarrek arrazoi izanagatik ere, aldaketaren bat egin behar izatea esapideari, zerbait gehituz edo kenduz.

Edonola ere, egia esan behar bada, emaitza hauek erabat harrituta utzi naute, denak *guztiz ados* egongo zirela pentsatzen bainuen.

2. *"Euskararen normalizazio kontzeptuak, euskara bizitzako aspektu guztietan erabiltzeari egiten dio erreferentzia, euskararen egoera normalizatuan, euskarak edozertarako balio behar duelarik" (Esnaola Arribillaga, I., 2007).*

   Euskararen normalizazioa lor dadin, beharrezkoa da honen erabilera eremu guztietara zabaldu eta hedatzea. Nork egin beharreko lana dela uste duzu? Azpimarratu erantzun egokia:



Irudia 2.2: 2. Galderaren erantzunak.

- *L.H. maila*: Euskararen normalizazio bat lor dadin, beharrezkoa da honen erabilera eremu guztietara zabaldu eta hedatzea eta hori Hezkuntza, Politika eta Kulturaren elkarrekintzak burutu behar du Lehen

Hezkuntzako irakasleen ustez.; hau da, denek batera lan egin behar dute normalizazioa lortzeko bidean.

- *D.B.H. maila*: Lehen Hezkuntzako erantzunen kasuan gertatzen den moduan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleak ere bat datoz erantzun bakarrarekin. Hauen ustetan, euskararen normalizazioaren aldeko lana, Hezkuntza, Kultura eta Politikaren elkarrekintzaren esku dago eta hauek izan behar dira, beste hainbatekin batera, normalizazioaren alde lan egin behar dutenak. Kasu honetan ere, inork ez du uste berez eman beharreko prozesua denik.
- *Unibertsitate maila*: Bigarren galdera honen erantzunei erreparatzen badiegu, denak bat datoz erantzun batean; hau da, normalizazio bat lor dadin, beharrezkoa dela Hezkuntza, Politika eta Kulturaren elkarrekintza. Halere, bada bakoitzak bere aldetik lan egin behar duela pentsatzen duenik ere, eta baita berez eman beharreko prozesua dela uste duenik ere, baina hauek ere Hezkuntza, Politika eta Kulturaren arteko elkarrekintza beharrezkotzat jotzen dute aipaturiko helburua lortu ahal izateko.

3. *Normalizazioa lor dadin, euskararen erabileraren gaitasun formala (ezagutza akademikoa) eta ez formala uztartzea beharrezkoa da. Azpimarratu zure aburuz egokia litzatekeen erantzuna:*



Irudia 2.3: 3. Galderaren erantzunak.

- *L.H. maila*: Maila honetako irakasleek beharrezko ikusten dute gaitasun formala eta ez-formala uztartzea euskararen normalizazioa lortzeko bidean.
- *D.B.H. maila*: Maila honetako irakasleek ere beharrezko ikusten dute euskararen erabileraren gaitasun formala eta ez-formala uztartzea normalizazio bat lortu ahal izateko.
- *Unibertsitate maila*: Galdetegia erantzun duten irakasle guztiek hautu bera egin dute laugarren galdera honetan ere. Guztiek jotzen dute beharrezkotzat euskararen erabileraren gaitasun formala eta gaitasun informala uztartzea, Euskal Curriculumak bere txostenean aipatzen duenarekin bat etorririk. Maila guztiak bat datoz beraz erantzunarekin, bai Lehen Hezkuntzako irakasleak, bai Bigarren Hezkuntzakoak eta baita Unibertsitate mailako irakasleak ere, horrek garbi uzten duelarik galderaren erantzuna.

4. *Normalizazio prozesu batean nor da guztiz beharrezkoa eta garrantzitsua zure ustetan? Azpimarratu erantzuna/k:*



Irudia 2.4: 4. Galderaren erantzunak.

- *L.H. maila*: Lehen Hezkuntzako irakasleen gehiengoak uste du euskararen erabilera eremu guztietara zabaldu eta hedatzea politikaren

lana dela; gutxiengoak soilik dioelarik norbanakoan egin beharreko zeregina dela.

- *D.B.H. maila*: Irakasle hauek esandakoaren arabera, normalizazio prozesu batean norbanakoak du garrantzia gehien, honen ekimenik gabe ezinezkoa baita normalizaziora heltzea, ezta beste ezertara ere. Horrez gain, hezkuntza, politika eta kulturak ere zeresana badutela azpimarratu dute, baina beti ere norbanakoaren ekimenari loturik. Azken finean, denen arteko lan baten ondorio behar du izan normalizazioak.
- *Unibertsitate maila*: Galdera honi emandako erantzunen arabera, eta marko teorikoan esaten denarekin bat eginez, norbanakoak badu garrantzia normalizazio prozesuan, baina baita hezkuntzak, politikak eta kulturak ere, hauek baitira gizarte baten oinarrian dauden erakundeak eta prozesu dinamikoa sustatzeko giltzarriak. Ondorioz, argi geratzen da irakasle guztiek eremu hauen garrantzia azpimarratzen dutela.

5. *Hizkuntzaz ari garenean, askotan errepikatzen diren kontzeptuak dira elebitasuna (A eta B hizkuntzak modu berdintsuan erabiltzeko gaitasuna) eta diglosia (A hizkuntza ofiziala izanik, B hizkuntzak ez duenean estatus bera mantentzen).*

   Hau kontuan izanik, euskaldunon hizkuntza komunitatea gaur egun zein egoeratan dagoela esango zenuke? Azpimarratu erantzuna:



Irudia 2.5: 5. Galderaren erantzunak.

- *L.H. maila*: Diglosiaren kontzeptuak unibertsitate mailan zeresan handia eta definizio kontrajarriak eman baditu ere, L.H. eta D.B.H. mailetan irakasleek garbi dute gaur egun euskaldunon hizkuntza komunitatea diglosi egoeran dagoela. Bitxia da benetan emaitzen arteko ezberdintasun hau, eta zer pentsatua ematen du.
- *D.B.H. maila*: Aurreko puntuan aipatu moduan, irakasle hauen aburuz ere euskal hiztunon komunitatea diglosia egoeran dago.
- *Unibertsitate maila*: Galdera honen erantzunak zenbait ekarpen ere ekarri ditu berekin. Galdeketa burutu duen irakasleetako batek, euskaldunon hizkuntza komunitatea diglosia egoeran dagoela dio, baina besteek ez dute uste hori horrela denik. Gainerako irakasleek, euskaldunon hizkuntza komunitatea beste egoera batean dagoela diote eta ez datoz bat Txilardegik esaten duenarekin. Batzuek diote gure elebitasun maila apala dela eta horrek zaildu egiten duela mintzairaren erabilera tokibanatzeko edozein planteamendu. Horrez gain, euskaldunon hizkuntza komunitatea anitza dela eta askotariko egoeran dagoela ere badiote. Bestalde, bada gure lurraldearen zatirik handiena (baina ez osoa) diglosia egoera argian dagoela esaten duenik ere. Emaitzak, anitzak bezain aberatsak izan dira kasu honetan eta diglosia kontzeptua kontzeptu zabala dela adierazten du horrek.

6. *Ulibarri txostenaren arabera, euskararen hedapena gerta dadin, hainbat xede jorratu behar dira: hiztun kopurua haztea, erabileraren maiztasuna handitzea eta erabilera arauak adostea.*

   ***Ikasleak** ohartzen al dira xede hauen beharraz? Azpimarratu egokien deritzozun aukera:*



Irudia 2.6: 6. Galderaren erantzunak (ikasleak).

- *L.H. maila*: Galdetegiaren emaitzek diotenaren arabera, irakasleen erdiek diote Lehen Hezkuntzako ikasleak ez direla xede hauetaz ohartzen, eta beste erdiak berriz, gutxi batzuk direla ohartzen direnak. Garbi gelditzen da beraz, gutxiengo bat dela hain garrantzitsuak diren xede hauen beharren berri dutenak.
- *D.B.H. maila*: Galdetegia erantzun dutenen arabera, Bigarren Hezkuntzako ikasleen gehiengoa konturatzen da aurrez aipatu diren xede hauen beharraz. Hala eta guztiz ere, badira gutxi batzuk ohartzen direla diotenak edota ikasleak ohartzen ez direla diotenak ere. Kasu honetan lorturiko emaitzak anitzak dira eta mota guztietako interpretazioei uzten diete lekua. Euskal hiztunon komunitatearen eremua handia da eta honekiko konpromisoa leku batetik bestera aldakorra.
- *Unibertsitate maila*: Emaitzen arabera, ikasle kopuru txiki bat ohartzen da euskararen hedapena gerta dadin hiztun kopurua hazi, erabilera maiztasuna handitu eta erabilera arauak adostu behar direla; edo hori diote behintzat unibertsitate mailako irakasleek. Halere, arestian aipatu moduan, irakasleak hizkuntza komunitateko txoko ezberdinetakoak dira, eta ondorioz, bada xede hauen beharraz ikasleak ohartzen direla esaten duenik ere. Horrek erakusten digu jada azaldu dudan moduan,

euskararen erabilera eta honekiko konpromisoa aldakorrak direla eremu batetik bestera.

***Irakasleak** ohartzen al dira xede hauen beharraz? Azpimarratu egokien deritzozun aukera:*



Irudia 2.7: 6. Galderaren erantzunak (irakasleak).

- *L.H. maila*: Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunei dagokienean, irakasleen %100-a ohartzen dela xede hauen beharraz esan daiteke, guztiak baitatoz bat erantzunarekin.
- *D.B.H maila*: Bigarren Hezkuntzako irakasleen ustetan berriz, irakasleen gutxiengoa da xede hauen beharrez ohartzen dena. Galdeketa bete duten irakasleetako batzuek diote baietz, irakasleak ohartzen direla xede hauen beharraz; beste batzuek ordea, irakasleen gehiengoa dela ohartzen dena diote, baina halere, galdeketa bete duten gehiengoak gutxi batzuk soilik ohartzen direla dio.
- *Unibertsitate maila*: Azkenik, unibertsitate mailako irakasle eta adituei dagokienez, galdetegia bete dutenen hautua erabat zatikatua dago. %50-ak dio, irakasleen gutxienekoa dela xede hauez ohartzen dena eta beste %50-ak berriz, irakasleen gehiengoa ohartzen dela dio. Normala den moduan, norberak bere lan eremua ezagutzen du eta bertan ikusitakoaren araberako hautaketa egiten ondoren. Jositako

emaitzak denetarikoak dira baina argi geratzen da inork ez duela uste ikasle nahiz irakasle guztiak xede hauen garrantziaz ohartzen direnik, ezta inor ohartzen ez denik ere. Beraz, oharpen maila behintzat egon, badago.

7. *Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko kide den Paul Bilbaok dio, normalizazio bat gerta dadin, ezinbestekoak diren gutxieneko batzuk aldarrikatu behar direla.*

   Sailka itzazu ondorengo aukerak zure ustetan duten garrantziaren arabera (1: Ezinbestekoa, 2: Garrantzitsua, 3: Garrantzi gutxikoa, 4: Ez adierazgarria):



Irudia 2.8: 7. Galderaren erantzunak (L.H.).

- *L.H. maila*: Galdetegia bete duten irakasleen gehiengoek ezinbestekotzat jotzen dute normalizazio bat gerta dadin hizkuntza lehentasunezkoa izatea. Horrez gain, garrantzitsutzat jotzen dute ezagutu beharrekoa izatea ere. Estatus egokia izatea garrantzi gutxikoa dela diote eta kanpo esku hartzerik gabeko politika bat izateari ematen diote garrantzi gutxien.



Irudia 2.9: 7. Galderaren erantzunak (D.B.H.).

- *D.B.H. maila*: Kasu honetan, irakasleriaren gehiengoak ezagutu beharrekoa izateari ematen dio garrantzia gehien. Garrantzitsua iruditzen zaie lehentasunezkoa izatea eta garrantzia gutxi ematen diote estatus egokia izateari. Azkenik, Lehen Hezkuntzako irakasleen kasuan bezala, kanpo esku hartzerik gabeko politikari ematen diote garrantzia gutxien hauek ere.



Irudia 2.10: 7. Galderaren erantzunak (Unibertsitatea).

- *Unibertsitate maila*: Unibertsitate mailan ere ezagutu beharreko izateari ematen zaio garrantzia gehien, Lehen Hezkuntzan egiten den moduan.

Ondoren ordea, garrantzitsutzat jotzen da estatus egokia eta garrantzi gutxikotzat lehentasunezkoa izatea. Azkenik, eta beste bi mailetan ikus daitekeen moduan, kanpo esku hartzerik gabeko politikari ematen zaio garrantzia gutxien.

8. *Arrue ikerketaren azken analisiek ikasleen eskolaz kanpoko hizkuntza giroak eskola barruko euskararen erabileran duen eragina adierazten dute. Emaitzei erreparatzen badiegu, hauek erdararen aldekoak direla ikus genezake.*

   Azpimarratu zure ustez zeren ondorio izan daitezkeen emaitza hauek:



Irudia 2.11: 8. Galderaren erantzunak.

- *L.H. maila*: Lehen maila honetan bat datoz galdetegia erantzun duten irakasle guztiak eskolaren jardunak zerikusirik ez duela esaten denean, inork ez baitu honen aldeko aipamenik egin. Horrez gain, esan behar da, hedabideen eraginak, erabaki soziopolitikoek eta euskarazko kultur produktuen eskasiak ondorioztatzen dituztela emaitza hauek. Aipatzekoa da, erantzun hauez gain beste hainbat faktore ere kontuan izan behar direla esaten dela; adibidez, irakasleetako batek dio, ezin dela ondorio bakar bat aipatu, bere ustetan faktore guztiak elkarloturik daudela-eta.

Ikasleentzat euskara ikasketa formala da, baina, orobat, gaztelania gizartean hedaturik dago, batez ere komunikabideen indarragatik. Hizkuntza politikak ere sekulako garrantzia du, irakasle honek dioenez euskara jakiteak beharrezko izan beharko bailuke lanpostu publikoetan; Paul Bilbao-k duela gutxi esan zuen moduan, hizkuntza boterea dela dio.

- *D.B.H. maila*: Hemen ere, Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunetan gertatzen den moduan, guztiak ados daude erantzun batean: emaitza hauen erantzule ez da eskolaren jardun eskasa; beraz, eskolak lana egiten duela behintzat argi geratu da. Erantzuleen gehiengoaren aburuz, emaitza hauek gaur egungo gizartean dagoen hizkuntza giroaren ondorio dira. Erabaki sozio-politikoek ere garrantzia badutela ikus daiteke eta baita hedabideen eraginak ere, nahiz eta hau gutxi batzuek hautatu duten oraingo honetan. *Beste batzuk* aukerak ere izan du jarraipena eta hauen ustetan globalizazioaren ondorio dira emaitza hauek.
- *Unibertsitate maila*: Hirugarren kasu honetan ere aipaturiko ikerketan adierazitako erdararen aldeko emaitzen zergatia emateko unean, irakasle guztiak bat datoz erantzun batean: emaitza hauek ez dira eskolaren jardun eskasaren ondorio, galdetegia bete dutenen ustetan, eskolak bere lana modu egokian egiten baitu. Egoera horren erantzuleak, gaur egungo gizartean dagoen hizkuntza giroa, hedabideen eragina eta erabaki soziopolitikoen ondorioak dira hauen ustetan; baina baita, euskal kultur produktuen eskasia eta ikasleak bizi diren hizkuntza giroa ere.

9. *X. Erizeren ustetan, eskolak ere hizkuntza hautaketa egiten du, honen lana beraz, hizkuntza hautatzeko irizpidea euskarara iraultzea da, esparru geografiko hau euskararen aldeko "mikroespazio" bilakatuz. Mikroespazio hau baliagarria dela iruditzen zaizu? Azpimarratu:*



Irudia 2.12: 9. Galderaren erantzunak.

- *L.H. maila*: Erizek aipatzen duen *mikroespazioaren* kontzeptua guztiz baliagarria iruditzen zaie galdetegia erantzun duten Lehen Hezkuntzako irakasleei.
- *D.B.H. maila*: Kasu honetan ere baliagarritzat jotzen dute irakasle denek *mikroespazio* hau; batzuk guztiz baliagarria dela diote, eta beste batzuk berriz, baliagarria dela, besterik gabe. Horrez gain, batek baliagarria dela badio ere ez nahikoa azpimarratzen du, gauza gehiago ere hartu behar direla kontuan. Argi dago beraz, maila honetako irakasleen ustetan ere Erize jaunak dioenarekiko adostasuna erabatekoa dela.
- *Unibertsitate maila*: Erizeren ustetan, eskola, euskararen aldeko *mikroepazio* bilakatu behar da, eta bat datoz honekin unibertsitateko irakasleak ere. Gehiengoarentzat, aipaturiko espazio hau sortzea, baliagarria da eta gutxi batzuentzat soilik da guztiz baliagarria. Aipatu beharra dago, galdera erantzun gabe ere utzi duela batek edo bestek, galdera ulertzeko arazoak medio. Ondorioz, grafikoan ikus daitekeen moduan (Ikus Irudia 2.12), ehunekoen batura ez da %100-era iristen.

10. *Txepetxen aburuz, euskara ikasi ahal izateko motibazioa, ezagutza eta erabilera beharrezkoak dira. Ikasketa prozesu hau bi bidetatik burutu*

daiteke: batetik, umetatik abiatuta ingurua baliatuz eta bestetik berriz, hizkuntza motibazioaren bitartez ikasiz.

Eman aipaturiko kontzeptu bakoitzari zure ustezko garrantziaren balioa ehunekotan:



Irudia 2.13: 10. Galderaren erantzunak (L.H.).

- *L.H. maila*: Lehenik eta behin, esan beharra dago ehunekoen artean ez dagoela ezberdintasun handirik (guztiak %30-aren inguruan dabiltza), eta beraz, Txepetxek aipatzen dituen hiru kontzeptuak garrantzitsutzat jotzen direla oro har. Halere, motibazioak du garrantzi gehien jasotako erantzun guztien artean, ondoren erabilerari ematen zaio garrantzia eta azkenik berriz, ezagutzari.



Irudia 2.14: 10. Galderaren erantzunak (D.B.H.).

- *D.B.H. maila*: Kasu honetan ere, hiru ezaugarrien arteko aldeak oso txikiak dira, baina oraingo honetan ezagutzari ematen zaio garrantzia gehien, ondoren motibazioa kokatzen da eta azkenik erabilera. Aurrez aipatu moduan, kontzeptuen arteko ezberdintasuna oso murritza da Bigarren Hezkuntzari dagokionean ere.



Irudia 2.15: 10. Galderaren erantzunak (Unibertsitatea).

- *Unibertsitate maila*: Unibertsitate mailako irakasleen emaitzak kontuan hartzean, emaitzen arteko alderaketa oso txikia dela nabaritzen da beste behin ere. Denei garrantzi bera ematen dietela esan daiteke orokorrean baina zenbakiei begiratzen badiegu, motibazioa garrantzitsuena dela ikus genezake; ondoren ezagutza kokatzen dute eta honekin berdindurik erabilera.

11. *Euskararen erabilera orekatu eta normalizatu bat lortu ahal izateko eremu formala eta ez formala uztartu behar dira. Noren lana da bi eremu hauek uztartzeko zeregina burutzea? Azpimarratu erantzun egokia/k:*



Irudia 2.16: 11. Galderaren erantzunak.

- *L.H. maila*: Bi eremu hauek uztartzeko zeregina gizarte osoarena dela aipatzen dute Lehen Hezkuntzako irakasleek, beste galdera batzuetan gertatu den moduan, denak bat etorriz aipaturiko hautaketan.
- *D.B.H. maila*: Bigarren Hezkuntzako irakasleen ustetan ere, eremu formala eta ez-formala uztartzeko zeregina gizarte osoarena da, baina baita kultur eragile, eskola eta norbanakoena ere (nahiz eta maila baxuago batean izan). Kasu honetan, marko teorikoarekiko adostasuna handiagoa da ondorengo puntuan azaltzen den unibertsitate mailakoarena baino, %50-en ustetan eskolarena baita eginbehar hau.
- *Unibertsitate maila*: Emaitzen arabera, euskararen erabilera orekatu eta normalizatu bat lortu ahal izateko eremu formala eta ez-formala uztartu behar dira eta hauek biak uztartzeko zeregina gizarte osoarena da irakasle hauen ustetan. Marko teorikoan aipatzen da eskolak zeregin handia duela arlo horretan, baina argi geratzen da eskolaz gain gizartea osatzen duten beste hainbat erakundek ere lan egin behar dutela.

12. *Zein adin tartetan izaten da hizkuntzaren hautaketa? Azpimarratu erantzun egokia/k:*



Irudia 2.17: 12. Galderaren erantzunak.

- *L.H. maila*: Galdera honi dagokionean, emaitzak askotarikoak izan direla aipatu behar da. Batzuen ustez haurtzaroa da hizkuntza hautaketa burutzen den unea, baina helduaroa eta nerabezaroa ere aipatzen dira. Beste batzuk edonoiz hautatzen dela aipatu badute ere, beste behin ere marko teorikoarekin bat eginez, nerabezaroaren aipamena da indar gehien izan duena.
- *D.B.H. maila*: Hizkuntza hautaketa gerta dadin, irakasle hauen ustetan adin garrantzitsuak dira nerabezaroa eta helduaroa, baina aurreko kasuan bezala edonoiz eman daitekeela diotenak ere badira. Garbi dago hizkuntzaren hautaketa noiz egiten den zehaztu gabeko zerbait dela eta askotariko erantzunak jaso direla, baina marko teorikoan esaten denarekin bat datoz galdetegia erantzun duten erdiak behintzat, hau da, hizkuntza hautaketa nerabezaroan ematen dela.
- *Unibertsitate maila*: Marko teorikoak dioenaren arabera, nerabezaroa da hizkuntza hautaketa ematen den adin tarte garrantzitsuena. Hala eta guztiz ere, emaitzek edonoiz eman daitekeela hautaketa hau diote.

Edozein adin garrantzitsua dela esan daiteke beraz, hizkuntza bat hautatu ahal izateko, nahiz eta badakigun, askotan, eskola garaia izaten dela horretarako unerik kritikoenetariko bat.

13. *Xamarrek eta Txillardegik euskararen normalizazioaren arazoa ez dela pedagogikoa soilik diote, soziala dela, alegia, soziopolitikoa; eta beraz, erabakiak maila politikoan eta ekonomikoan hartzen direla. Azpimarratu zure erantzuna:*



Irudia 2.18: 13. Galderaren erantzunak.

- *L.H. maila*: Lehen Hezkuntzako irakasleek erabakiak maila politiko eta ekonomikoan hartzen direla diote, eta beraz, arazoa ez dela eskola ingurunearena. Honekin loturik, galdetegia erantzun duen irakasle batek dio, Nafar Gobernuaren nahia euskara deuseztatzea dela eta horretarako tresna politika dela: PAI legearen ondorioz, astean 12 orduz ingelesa ematen dela eta honek euskarari tokia jaten diola; arraroa benetan, kontuan izanik lege hau ez dela Europa mailan aplikatzen. Horrez gain, euskara eta alemana aukeratzeko egoeran jarri nahi dituztela gurasoak aipatzen du ere, hau da, euskara ikasi nahi dutenek ezingo dutela alemana ikasi eta alderantziz; modu honetara euskarari beste eraso bat eginez.

- *D.B.H. maila*: Denak ados daude esatean euskararen normalizazioaren arazoa ez dela soilik pedagogikoa, eta beraz, erabakiak maila sozio-politiko eta ekonomikoan hartzen direla. Maila honetan lan egiten duten irakasleek ez dute zalantzarik izan eta garbi dute Xamarrek eta Txillardegik diotena horrela dela.
- *Unibertsitate maila*: D.B.H.-ko irakasleen antzera, hauek ere ados daude esatean euskararen normalizazioaren arazoa ez dela soilik pedagogikoa, eta beraz, erabakiak maila politiko eta ekonomikoan hartzen direla aipatzean. Halere, kontuan izan behar da askok beste faktore batzuk kontuan hartu behar direla ere esaten dutela. Hauen ustetan, euskal hiztunen komunitateak ezin du besoak gurutzatuta egon, eta hiztunok ere lan egin behar dugu geure esku dagoena eginez. Euskal Herrian modu honetara gauza asko egin direla diote, eta bestela honezkero galduak geundekeela.

14. *Euskararen erabilera sustatu dadin, beharrezkoa da eskolak ikasleak euskalduntzea; izan ere, ingurua euskalduna bada, euskalduntzearen beharra ezinbestekoa izango da. Halere, Euskararen Kontseiluak dio eskolak soilik ezin dezakeela lortu euskararen normalizazio hau. Zeregin honetan zein beste eragilek parte hartu beharko lukete eskolaz gain?*



Irudia 2.19: 14. Galderaren erantzunak.

- *L.H. maila*: Lehen Hezkuntzako irakasle guztiak ados daude esatean denek hartu behar dutela parte euskararen normalizazio prozesuan.
- *D.B.H. maila*: Bigarren Hezkuntzako irakasleen esanetan ere, denak hartu behar dute parte euskararen normalizazio prozesuan.
- *Unibertsitate maila*: Emaitzen arabera, eta euskararen kontseiluak dioenarekin bat eginez, normalizazioa lortzeko, eskola tresna garrantzitsua da. Hala eta guztiz ere, jakin badakigu eskolaz gain beste hainbat eragilek ere parte hartu behar dutela prozesu honetan. Esate baterako, familiak, kirol elkarteak, aisialdi taldeak, euskara eta kultur elkarteak, udalak, administrazioak, etab. Beraz, hiru mailak aztertu ostean argi geratu den bezala, denen laguntza ezinbestekoa izango da helburua lortzeko bidean.

15. *Euskararen kontseiluaren arabera, txikitan euskaraz egiteko hartutako ohitura, nerabezaroan ahuldu egiten da. Ezintasun honi aurre egiteko nahitaezkoa ikusten al duzu euskararen ezagutza bermatuko duen ikas-eredu orokortu bat izatea?* *Azpimarratu:*



Irudia 2.20: 15. Galderaren erantzunak.

- *L.H. maila*: Lehen Hezkuntzaren kasuan, ikas-eredu orokortu bat beharrezkotzat jotzen dute maila honetako irakasle guztiek, honela bakarrik lortuko baita txikitan euskararekiko hartutako ohitura bizirik mantentzea.
- *D.B.H. maila*: Galdetegiaren erantzuleen gehiengo handi batek uste du, txikitan euskaraz hitz egiteko ohitura nerabezaroan gal ez dadin, ikas-eredu orokortu bat izatea beharrezkoa dela. Halere, badira aukera hobeak daudela diotenak ere. Esate baterako, irakasle batek dio gizartearen zati handi batek ez duela egoki ikusten arazo hori konpontzea, hizkuntza bat nagusitzeak gizarte aldaketa bat eragiten baitu, eta nonbait gizartearen zati handi bat osatzen duten norbanako hauek ez lirateke eroso sentituko gizarte euskaldun batean; izan ere, horra iristeko hartu beharreko neurriak oso boteretsuak dira eta neurri horiekin jendea ez litzateke ados egongo.
- *Unibertsitate maila*: Gauza jakina da txikitan euskaraz hitz egiteko harturiko ohitura nerabezaroan ahuldu egiten dela. Honi konponbidea eman ahal izateko, ikas-eredu orokortu bat izatea beharrezkotzat jotzen du euskararen kontseiluak. Emaitzen arabera, irakasleen gutxiengo bat ados dago kontseiluak dioenarekin, baina beste hainbatek badirela aukera hobeak dio, aisialdia eta eskolaz kanpoko jardueren eskaintza, esate baterako. Beste batzuen aburuz berriz, ezin genezake dena eskolaren menpe utzi eta aurrez aipatu ditugun kirol elkarte, administrazio, eta abarrek ere hauen ekarpena egitea beharrezkoa da. Azkenik, batek dio, eskolaren ahalmena mugatua dela eta hori ulertzen ez dugun bitartean gaizki ibiliko garela; izan ere, honen ustetan, eskola-eredu homogeneoa amets teoriko ideologikoa besterik ez baita. Ikasle denak euskaraz eskolatuta ere, ezin esan genezake eredua bakarra denik denentzat, ezinbestean, eskolaren inguru soziolinguistikoak eragin handia duelako eskola barruko irakaskuntzan eta ikaskuntzan. Beraz, inguru soziolinguistikoak askotarikoak direnez Euskal Herrian, ikas-ereduak ere halaxe izango dira ezinbestean.

16. *Wert ministroak aurkeztutako legearen zirriborroa azken aldian bolo-bolo dabilen kontua da. Horrekin batera, Vascuenceren legeak ere 25 urte bete ditu jada. Hauek, euskararen normalizazio prozesuarentzat zer-nolako oztopo direla esango zenuke? Azpimarratu:*



Irudia 2.21: 16. Galderaren erantzunak.

- *L.H. maila*: Lehen Hezkuntzako irakasleek oztopoa oso handia dela uste dute, guztiak ados egonik aipamenarekin. Horrez gain, galdetegia erantzun duen irakasleetako batek, ekarpen bat ere egiten du eta honela dio: "Vascuenceren legearen ondorioz, Erriberan euskaraz ikasi nahi dutenek, Argia ikastolan ez beste ikastetxe guztietan, A eredua soilik aukera dezakete. Argi dago A ereduak ez duela euskalduntzen, baina haurrek euskara eta euskal kultura ikasi, maitatu eta erabil dezaten saiatzen gara".
- *D.B.H. maila*: Unibertsitateko irakasleek ez bezala, Bigarren Hezkuntzakoen %25ak hauen eragina txikia dela dio. Halere, gehienek eragina handia dela uste dute eta bada eragina oso handia dela dioenik ere. Horrez gain, batek Vascuenceren legea garai batean aurrera pauso handia izan zela ere badio, baina ingurune batzuetan garapena erabat oztopatzen duela.
- *Unibertsitate maila*: Irakasle eta aditu hauen ustez lege hauek oztopo dira. Galdetegia erantzun duten batzuen aburuz, oztopoa handia da eta

beste batzuen iritziz berriz, oso handia. Halere, azpimarratzekoa da Vascuenceren legearen kasuan, zonalde vascofonoan lege hau ez dela oztopo, nahiz eta zonalde mistoan eta zonalde ez vascofonoan halaxe den; izan ere, azken honetan, marko teorikoan esaten den moduan, euskarari hegoak mozten baitzaizkio.

17. *Askok diote, gaur egun indarrean dagoen curriculumarekin euskararen normalizazioa lortzea benetan zaila den eginkizuna dela.* *Azpimarratu:*



Irudia 2.22: 17. Galderaren erantzunak.

- *L.H. maila*: Lehen Hezkuntzako irakasle galdetuen artean gehiengoak gaur egun indarrean dagoen curriculumarekin normalizazioa lor daitekeela uste du. Badira ezetz diotenak edota ez dela curriculum arazo bat diotenak ere, baina, esan bezala, gehiengoaren ustez gaur egun dagoen curriculumarekin heldu gintezke normalizaziora.
- *D.B.H. maila*: Maila honetan jaso diren erantzunek diotenez, euskararen normalizazioaren arazoa ez da curriculum arazo bat. Batzuek baietz diote, gaur egungo curriculumarekin zaila dela normalizazio bat lortzea, baina beste batzuek ez dute horrela pentsatzen, gaur egungo curriculumarekin lortu daitekeela normalizazioa baitiote. Curriculum arazo bat ez dela diotenen artean, batzuek curriculumean gauzatxoak egin daitezkeela diote, baina normalizazioa lortzeko garrantzitsuagoak

diren kontuak badaudela, eta beste batek berriz, dena premia kontua dela dio; gizartean ez dela islatzen euskararen premia eta bai, aldiz, ingelesarena, beraz, ez dela curriculum arazo bat.

- *Unibertsitate maila*: Azkenik, unibertsitateko irakasle eta adituen gutxiengo batek dio, gaur egun indarrean dagoen curriculumarekin zaila dela normalizazio batera heltzea. Halere, gehiengoaren ustetan, normalizazioaren arazoa ez da curriculum arazo bat, kontua askoz ere zabalagoa baita. Batzuen ustetan, arazoa politikoa da, soziala eta batez ere kulturala. Beste batzuen ustetan, ordea, curriculumaren ekarpena funtsezkoa da eta alde horretatik mugak dituela aitortzen dute. Beraz, curriculumari garrantzia eman behar zaiola uste dute baina tentu handiz, arazoa gai ideologiko-politikoa baita batez ere, eta ez didaktikoa, aurrez esan moduan.

2.4. Comparación de los resultados obtenidos: Educación Primaria, Educación Secundaria y Nivel Universitario

En cuanto a los resultados obtenidos a nivel universitario, se puede decir que los resultados son producto de un trabajo minucioso. Teniendo esto en cuenta, queda claro que el profesorado conoce realmente el tema y que es importante en su día a día. Han trabajado mucho cada respuesta y queda claro que sus respuestas han sido muy meditadas. Como consecuencia de todo lo anterior, casi todas las respuestas tienen alguna que otra nota, en las cuales dan a conocer sus conocimientos y sus opiniones.

Respecto a los niveles de primaria y secundaria, no han sido tantas las personas que han utilizado notas para exponer sus opiniones, sino que las respuestas han sido más directas. Por otro lado, también cabe destacar, que en las respuestas del profesorado de nivel universitario hay grandes diferencias entre unas respuestas y otras. Cada profesor y profesora, como es normal, tiene su punto de vista y da a conocer la situación que se da en su entorno y que a su parecer es la correcta.

En los niveles de primaria y secundaria, la variedad de respuestas no ha sido tanta, e incluso en algunas respuestas ha habido acuerdo entre gran parte del profesorado.

Volviendo al nivel universitario, cabe destacar, que son pocas las personas que realmente coinciden en una pregunta y siempre hay algo que mejorar. Por ello, incluso en las preguntas en las cuales han coincidido, no han marcado la opción “completamente de acuerdo” y se han quedado con la opción “de acuerdo”. En cambio, en los otros dos niveles, han sido muchos los que han optado por la respuesta “completamente de acuerdo”.

En cuanto a la normalización, cabe destacar que los conocimientos de las profesoras y profesores de nivel universitario son elevados y por ello, han optado por dar respuestas extensas y ricas en cuanto a contenido, aportando más conocimientos en torno al tema. Esto no quiere decir que en otros niveles no hayan dado respuestas ricas en contenido, extensas y realmente válidas, sino que cada uno lo ha hecho desde su particular y diferente punto de vista. Algunos, incluso, han llegado a sugerir correcciones que han resultado ser muy útiles para la realización de este trabajo.

No han sido abundantes las respuestas en las cuales los tres niveles, es decir, primaria, secundaria y nivel universitario, han coincidido, aunque a veces haya sucedido en alguna que otra pregunta. Como acabo de mencionar, en dos o tres preguntas, el acuerdo ha sido total y esto demuestra la implicación y el conocimiento que estos profesores y profesoras demuestran respecto al tema.

Por si esto fuera poco, cabe mencionar, el desacuerdo que hay entorno al concepto de la diglosia. En cuanto a los niveles de primaria y secundaria, han demostrado que en su opinión, la comunidad lingüística vasca se encuentra en una situación de diglosia. Pero teniendo en cuenta las respuestas del nivel universitario, es bien pequeño el grupo que opta por decir que la situación en la cual vivimos es tal. Incluso hay quien dice no estar de acuerdo con Txillardegi, y que el concepto de la diglosia no es un concepto que se pueda aplicar hoy en día. Eso nos vuelve a reafirmar en

que el conocimiento en torno a la normalización es de un nivel, cuanto menos, elevado.

El tema de un modelo educativo generalizado es otro de los aspectos a tener en cuenta. En primaria y secundaria, tienen claro que para que se llegue a una normalización es imprescindible llevar a cabo dicho modelo, pero en el nivel universitario no creen que ésta sea válida para dicho proceso. Por otro lado, cuando se pregunta si el problema tiene algo que ver con el currículum, todos los niveles muestran un acuerdo mutuo; no es un problema curricular.

Para finalizar, cabe destacar, que las profesoras y profesores que han respondido la encuesta viven en localidades muy diversas de la comunidad lingüística vasca, y aun teniendo en cuenta la distancia que los separa, en la mayoría de las preguntas, las respuestas han sido parecidas. Cada cual vive una realidad distinta, con su propia situación lingüística, territorial y política, pero el profesorado tiene claro cuál es el proceso a seguir hacia la normalización. Cada nivel ofrece su punto de vista, lo cual es normal teniendo en cuenta que se trabaja con diferentes objetivos, pero si tenemos en cuenta las preguntas del ámbito general sobre el tema, las respuestas han sido parecidas.

Como conclusión, destacar que aunque los niveles en los cuales se han realizado las encuestas son realmente diferentes y que los profesores y profesoras son de distintas zonas de la comunidad vasco parlante, unánimemente han concluido en que la necesidad de una normalización lingüística es de vital importancia, y que cada persona está haciendo, dentro de sus posibilidades, lo posible para poder obtener este objetivo común.

CONCLUSIONES

Como conclusión del trabajo queda claro que quienes hablamos el euskara seguimos siendo una minoría en nuestro territorio. Cuando se trata del euskera, nos encontramos con un idioma de libre elección por parte del individuo, mientras que si se trata del castellano, con un idioma cuyo conocimiento y utilización es necesario, casi obligatorio. Sin ninguna duda la adhesión a las tesis de J. C. Etxegoien “Xamar” (2011) es total. La utilización y la fuerza del euskera, es menor de lo que debiera ser y, por el contrario, la del castellano, debido a diversos factores, es mayor. Aparte del idioma de nuestro territorio, tenemos otra que es oficial; por ello, la ciudadanía no ve la necesidad de hablar o aprender en euskera, ya que tiene la posibilidad y el derecho de hacerlo en castellano. En los resultados que se han obtenido, queda claro que esta situación necesita un cambio, y que para ello es absolutamente necesario que se produzca una normalización del euskera. Es vital que la utilización de dicho idioma se extienda a todos los campos de la sociedad, pero para cumplir con el objetivo no es suficiente el trabajo de los centros educativos, se debe trabajar conjuntamente en la educación, la política y la cultura; tal y como se reconoce en el documento Ulibarri. Es obvio que en una situación normalizada, el euskera debe ser válido para cualquier ámbito de la sociedad. Como se acaba de mencionar, la normalización de una lengua es un trabajo que incumbe a la sociedad en su integridad, en la cual, deben tomar parte todo tipo de instituciones. Sin la participación de éstas y la implicación real de la sociedad, será imposible alcanzar el objetivo de la normalización.

Al hilo de la situación del euskera, J. L. Álvarez Enparanza (1978), más conocido como Txillardegi, decía que el euskera vivía en una situación de diglosia, es decir, siendo oficial el idioma A, el idioma B nunca mantiene el mismo estatus. Reafirmando lo dicho, cabe destacar que en la comunidad vascoparlante hay poco bilingüismo y mucha diglosia. Por otra parte, es cierto que los datos manejados por este autor corresponden a la década de los 70 del pasado siglo, a los años de la transición y, evidentemente, los tiempos han cambiado. Teniendo en cuenta lo dicho, es posible que hoy en día haya que describir de un modo más sutil la situación actual del euskera en nuestro

territorio. Aún siendo esto así, todavía son muchas las personas que piensan que la situación del euskera es de diglosia y comparten lo que en su día dijo Txillardegi.

Volviendo a la importancia de la expansión del euskera, para que ésta se produzca es necesario elevar el número de personas vascoparlantes, aumentar la frecuencia de su utilización y acordar unas leyes para su correcto uso. No obstante, es necesario que tanto alumnado como profesorado se dé cuenta de ello. Mediante la información obtenida en los cuestionarios, se puede observar que la mayoría del profesorado es consciente de la necesidad de estos requisitos, mientras que en el caso del alumnado estos requisitos solo los reconoce una minoría. A pesar de ello para llegar a una normalización del euskera es necesaria la implicación y el trabajo de ambas partes, tanto de alumnos y alumnas como de profesoras y profesores. Las dos partes deben hacer un esfuerzo y trabajar conjuntamente hacia el objetivo, aunque para que éste se logre es necesario que el euskera sea un idioma prioritario, necesario para poder vivir en territorio vascoparlante y se le otorgue un estatus adecuado.

Los resultados obtenidos no son favorables al euskera; no por lo menos hasta ahora en el ámbito escolar. Es obvio que el ambiente lingüístico que se respira en nuestra sociedad no favorece a la utilización del euskera. Por si esto fuera poco, la mayoría de los medios de comunicación emiten sus programas en castellano, por lo cual, el ambiente lingüístico que se crea fuera del aula tampoco favorece al euskera. Como bien afirma en sus respuestas el profesorado de las distintas zonas del territorio vascoparlante, para lograr el cambio es necesario un aprendizaje, una enseñanza del euskera y una normalización, temas que incumben a la persona, a la sociedad y a los centros educativos. Sin un contexto euskaldun, es difícil que se dé la utilización del euskera, y sin la utilización del euskera es imposible crear un contexto euskaldun, por lo cual, ambas partes deben ir de la mano.

Acabamos de remarcar la importancia que tienen los centros educativos. Los centros educativos deben apoyar que el alumnado hable en euskera y debe apoyar a quienes quieren que el euskera sea su herramienta de

comunicación. Para ello, como bien indica X.Erize (1997), dichos centros han de convertirse en un “microespacio” a favor del euskera.

Continuando en el ámbito escolar, ha quedado claro que el problema de la normalización no es solamente un problema curricular; por el mero hecho de cambiar el *curriculum* no se logrará la normalización; con el *curriculum* actual y buen trabajo e implicación de la sociedad se podría lograr el objetivo; pero es innegable que cambiándolo se daría un paso importante en este sentido. De hecho así se viene proponiendo desde diferentes instancias que apoyan el llamado *Euskal Curriculuma* o nuevo *curriculum vasco.*

Según J. M. Sanchez Carrión “Txepetx” (1987) para que una persona pueda aprender euskera, son necesarios la motivación, el conocimiento y la utilización. Estos conceptos deben aplicarse de manera equitativa, es decir, todos los conceptos deben tener la misma importancia. Todos son necesarios para poder aprender una lengua, por ello, los centros educativos deben motivar a su alumnado para que utilice el euskera y de este modo adquiera conocimientos. En el camino de la normalización es realmente necesario que se tomen iniciativas desde la interacción entre la educación y la sociedad, es decir, que se unan el ámbito formal y el informal, para, de este modo, lograr el objetivo común que es nada más y nada menos que la normalización de nuestra lengua.

Como acabamos de decir, es necesario que el ámbito formal y el no formal caminen en paralelo pero algunas veces se ponen obstáculos para que esto no ocurra. Sabemos que sin la educación, es decir, el ámbito formal, es imposible que se dé una normalización, pero quienes ponen los obstáculos también son conscientes de ello. Como el bastón de mando está en sus manos, muchas veces se dan pasos en contra del objetivo. Por eso se dice que el problema de la normalización no es un problema pedagógico, sino un problema social, es decir, sociopolítico, como bien han señalado Xamar y Txillardegi. Podemos poner como ejemplo de dichos obstáculos el último borrador de la ley Wert, dado que pretende dejar fuera el sistema educativo que durante tantos años ha garantizado que en nuestro pueblo haya alumnos y alumnas vascoparlantes. Dada la situación en la que nos encontramos, gran parte del profesorado de la

comunidad vascoparlante está atemorizada, ya que no conoce el impacto que esta ley puede causar en el ámbito escolar y en la propia sociedad.

Para poder afrontar esta situación y afianzar la utilización del euskera, se debe dar el trabajo conjunto de las familias, los centros educativos y las diferentes instituciones tanto en las ciudades como en los pueblos pequeños. Ser dueños de una conciencia ciudadana es realmente importante, empezando desde las personas más jóvenes y acabando con las mayores, ya que todos somos parte de la comunidad lingüística.

Como conclusión, se puede afirmar que el nivel de conocimiento y la implicación sobre el tema es elevado en torno al profesorado, ya que quienes han recibido la encuesta la han rellenado. Han demostrado que saben de lo que hablan; todos y todas saben hacia dónde se ha de remar para poder llevar a buen puerto la nave de la normalización.

REFERENCIAS

Libros

Aldecoa Arana, M.A. (2011). *Euskararen normalizazioa hezkuntzan (2000-2010): Ulibarri programa. Euskarri teorikoa, metodologia eta faktore azalgarriak*. Doktoretza tesia, Bilbo.

Alvarez Enparanza, J.L., "Txillardegi". (1978). *Euskal Herritik erdal herrietara*. Amorebieta: Egile editore.

Erize, X. (1997). *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863–1936): Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua, Iruñea.

Pérez Esteve, P.; Zayas, F. (2007). *Competencia en comunicación lingüística*. Madril: Alianza Editorial.

Sanchez Carrión, J.M., "Txepetx". (1987). *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del Euskera y teoría social de las lenguas*. Lizarra: Elkar S.A.

Artículos

Amondarain, A. (1999). "Euskara nerabezaroan. DBH eta DBHOn euskararen erabilera sustatzeko zenbait ideia". *Hik Hasi*, 1-6, (42).

Bereziartua, J. (2012). "Euskaren normalizazioa maratoi bat da; poliki goaz, baina aurrera." *Goiena*, 1.

Bilbao, P. (2013). "Nola jokatu beharko genuke eskolan euskararen normalizazioan aurreratzeko?" *Hik Hasi*.

Etxegoien, J.C., "Xamar". (2011). "Euskararen normalizazioaren arazoa ez da pedagogikoa soilik, soziala da, alegia, politikoa. Kalean dagoen zerbait da, eskolak ezin du konpondu." *Hik Hasi*, 1-5, (159).

Euskal Curriculuma Herritarren ekarpena. (2011) Euskara eta Curriculuma, 1-7.

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua. (2012). “Gatazka gainditzeko prozesuan “Euskararen gutxienekoak” kontuan hartu beharra aldarrikatu du kontseiluak.” *Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua*, 1-2.

Eusko Jaurlaritza Hezkuntza Saila. (1990). 1/1990 Legea Orokorra, urriaren 03koa, Hezkuntza Sistemaren Lege Organiko Orokorra (LOGSE), (BOE 90-10-04).

Eusko Jaurlaritza Hezkuntza Saila. (2007). 175/2007 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa (EHAA, 2007 – 11 – 13).

Eusko Jaurlaritza Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. (2013). Arrue proiektua. *Euskararen Berripapera*, 4.

Euskararen Kontseilua. (2009). “Euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eskolatik abiatuta.” *Hik Hasi*, 1-12, (141).

Euskararen Kontseilua. (2011). “Euskararen ezagutza berma dadin beharrezkoa da euskara currikulumeko ikasgai guztietan lantzea”. *Hik Hasi*, 1-2, (154).

LAB. (2012). “Vascuenceren legea 25 urte”. Kaier gorria, 1-3.

STEE-EILAS, “Zer da LOMCEa?” (2013) *Stop Wert*, 16.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: Galdetegia

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA ETA ESPARRUA

-GALDETEGIA-

Galdetegi honen helburua *Euskararen normalizazioari eta esparruari* buruzko Gradu Bukaerako Lana osatu ahal izateko datuak biltzea da. Bertan aurkituko dituzun galdera guztiak itxiak dira, nahiz eta batzuetan ekarpenak egiteko aukera izango duzun.

Erantzunak anonimoak izango dira, baina emaitzak aztertzerakoan lagungarri izango litzaidake zure profila ezagutzea, beraz eskertuko nizuke ondorengo atalak beteko bazenitu:

- Izen-abizenak:
- Euskararekin duzun harremana (ikasketak, lana, etab.):
- Data:

Mila esker.

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA ETA ESPARRUA: GALDETEGIA

- ✓ " Euskaldunek gutxiengoa izaten jarraitzen dute beren lurraldean, hizkuntza euskara denean, aukera pertsonalen artean sarturik dago. Eta erdara, berriz, ezagutu eta erabili beharra dago; euskarak, beraz, ez du zinezko ofizialtasunik bere lurraldean inon" (Etxegoien, J.C.,"Xamar", 2011).

  Adierazi ezazu baieztapen honekiko zure adostasuna aukera egokia azpimarratuz:

  a) Guztiz ados *b) Ados* *c) Desados* *d) Guztiz desados*

- ✓ "Euskararen normalizazio kontzeptuak, euskara bizitzako aspektu guztietan erabiltzeari egiten dio erreferentzia, euskararen egoera normalizatuan, euskarak edozertarako balio behar duelarik" (Esnaola Arribillaga, I., 2007).

  Euskararen normalizazioa lor dadin, beharrezkoa da honen erabilera eremu guztietara zabaldu eta hedatzea. Nork egin beharreko lana dela uste duzu? Azpimarratu erantzun egokia:

  a) Hezkuntzak
  b) Politikak
  c) Kulturak
  d) Hezkuntza, Politika eta Kulturaren elkarrekintzak
  e) Berez eman beharreko prozesua da

- ✓ Normalizazioa lor dadin, euskararen erabileraren gaitasun formala (ezagutza akademikoa) eta ez formala uztartzea beharrezkoa da. Azpimarratu zure aburuz egokia litzatekeen erantzuna:

  a) Bai *b) Ez* *c) Formala soilik* *d) Ez formala soilik*

- ✓ Normalizazio prozesu batean nor da guztiz beharrezkoa eta garrantzitsua zure ustetan? Azpimarratu erantzuna/k:

  a) Norbanakoa *b)* Hezkuntza *c)* Politika *d)* Kultura

- ✓ Hizkuntzaz ari garenean, askotan errepikatzen diren kontzeptuak dira elebitasuna (A eta B hizkuntzak modu berdintsuan erabiltzeko gaitasuna) eta diglosia (A hizkuntza ofiziala izanik, B hizkuntzak ez duenean estatus bera mantentzen).

  Hau kontuan izanik, euskaldunon hizkuntza komunitatea gaur egun zein egoeratan dagoela esango zenuke? Azpimarratu erantzuna:

  a) Elebitasun egoeran *b) Diglosi egoeran* *c) Beste egoera batean*

  Zure erantzuna "*c) Beste egoera batean"* bada, azal ezazu zein den egoera:

- ✓ Ulibarri txostenaren arabera, euskararen hedapena gerta dadin, hainbat xede jorratu behar dira: hiztun kopurua haztea, erabileraren maiztasuna handitzea eta erabilera arauak adostea.

  Ikasleak ohartzen al dira xede hauen beharraz? Azpimarratu egokien deritzozun aukera:

  a) Bai *b) Ez* *c) Gutxi batzuk* *d) Gehiengoa*

  Irakasleak ohartzen al dira xede hauen beharraz? Azpimarratu egokien deritzozun aukera:

  a) Bai *b) Ez* *c) Gutxi batzuk* *d) Gehiengoa*

- ✓ Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko kide den Paul Bilbaok dio, normalizazio bat gerta dadin, ezinbestekoak diren gutxieneko batzuk aldarrikatu behar direla.

  Sailka itzazu ondorengo aukerak zure ustetan duten garrantziaren arabera (1: Ezinbestekoa, 2: Garrantzitsua, 3: Garrantzi gutxikoa, 4: Ez adierazgarria):

	Balioak (1-4)
Kanpo esku hartzerik gabeko politika	
Estatus egokia (ofizialtasuna)	
Lehentasunezkoa izatea	
Ezagutu beharrekoa izatea (erabili beharrekoa)	

- ✓ Arrue ikerketaren azken analisiek ikasleen eskolaz kanpoko hizkuntza giroak eskola barruko euskararen erabileran duen eragina adierazten dute. Emaitzei erreparatzen badiegu, hauek erdararen aldekoak direla ikus genezake.

  Azpimarratu zure ustez zeren ondorio izan daitezkeen emaitza hauek:

  a) *Gaur egungo gizartean dagoen hizkuntza giroa*
  b) *Hedabideen eragina*
  c) *Eskolaren jardun eskasa*
  d) *Erabaki soziopolitikoen ondorioa*
  e) *Euskarazko kultur produktuen eskasia*
  f) *Beste batzuk*

  Zure erantzuna "*f) Beste batzuk"* bada, azal itzazu beste ondorio batzuk:

- ✓ X. Erizeren ustetan, eskolak ere hizkuntza hautaketa egiten du, honen lana beraz, hizkuntza hautatzeko irizpidea euskarara iraultzea da, esparru geografiko hau euskararen aldeko “mikroespazio” bilakatuz.

  Mikroespazio hau baliagarria dela iruditzen zaizu? Azpimarratu:

  a) Guztiz baliagarria *b) Baliagarria* *c) Ez oso baliagarria* *d) Alferrikakoa*

- ✓ Txepetxen aburuz, euskara ikasi ahal izateko motibazioa, ezagutza eta erabilera beharrezkoak dira. Ikasketa prozesu hau bi bidetatik burutu daiteke: Batetik, umetatik abiatuta ingurua baliatuz eta bestetik berriz, hizkuntza motibazioaren bitartez ikasiz.

  Eman aipaturiko kontzeptu bakoitzari zure ustezko garrantziaren balioa ehunekotan:

Motibazioa	%
Ezagutza	%
Erabilera	%

- ✓ Euskararen erabilera orekatu eta normalizatu bat lortu ahal izateko eremu formala eta ez formala uztartu behar dira. Noren lana da bi eremu hauek uztartzeko zeregina burutzea? Azpimarratu erantzun egokia/k:

  a) Gizarte osoarena *b) Kultur eragileena* *c) Eskolarena* *d) Norbanakoarena*

- ✓ Zein adin tartetan izaten da hizkuntzaren hautaketa? Azpimarratu erantzun egokia/k:

  a) Haurtzaroan *b) Nerabezaroan* *c) Helduaroan* *d) Edonoiz*

- ✓ Xamarrek eta Txillardegik euskararen normalizazioaren arazoa ez dela pedagogikoa soilik diote, soziala dela, alegia, soziopolitikoa; eta beraz, erabakiak maila politikoan eta ekonomikoan hartzen direla. Azpimarratu zure erantzuna:

a) Ados nago	*b) Ez nago ados*	*c) Beste hainbat faktore ere kontuan hartu behar dira*

Zure erantzuna "*c) Beste hainbat faktore ere kontuan hartu behar dira"* bada, azal itzazu:

- ✓ Euskararen erabilera sustatu dadin, beharrezkoa da eskolak ikasleak euskalduntzea; izan ere, ingurua euskalduna bada, euskalduntzearen beharra ezinbestekoa izango da. Halere, Euskararen Kontseiluak dio eskolak soilik ezin dezakeela lortu euskararen normalizazio hau. Zeregin honetan zein beste eragilek parte hartu beharko lukete eskolaz gain?

  a) Familiak
  b) Kirol Elkarteak
  c) Aisialdi taldeak
  d) Euskara eta Kultur Elkarteak
  e) Udalak
  f) Administrazioak
  g) Denek

- ✓ Euskararen kontseiluaren arabera, txikitan euskaraz egiteko hartutako ohitura, nerabezaroan ahuldu egiten da. Ezintasun honi aurre egiteko nahitaezkoa ikusten al duzu euskararen ezagutza bermatuko duen ikas-eredu orokortu bat izatea? Azpimarratu:

  a) Bai *b) Ez* *c) Badaude aukera hobeak*

  Zure erantzuna "*c) Badaude aukera hobeak"* bada, azal itzazu:

- ✓ Wert ministroak aurkeztutako legearen zirriborroa azken aldian bolo-bolo dabilen kontua da. Horrekin batera, Vascuenceren legeak ere 25 urte bete ditu jada. Hauek, euskararen normalizazio prozesuarentzat zer-nolako oztopo direla esango zenuke? Azpimarratu:

  a) Oso handia *b) Handia* *c) Txikia*

- ✓ Askok diote, gaur egun indarrean dagoen curriculumarekin euskararen normalizazioa lortzea benetan zaila den eginkizuna dela. Azpimarratu:

  a) Ados nago *b) Ez nago ados* *c) Ez da curriculum arazo bat*

  Zure erantzuna "*c) Ez da curriculum arazo bat"* bada, azal ezazu zer arazo mota den: